



Urepel abesbatza sortu dute Sopelan, elkarregaz abestu eta musikaren ikaskuntza lantzeko ▶08

Uribe Kosta Lea-Artibairi nagusitu zaio Bertsolari Gazteen BBK sariketan. Txapelketan parte hartu zuen Paule Loizagagaz berba egin dugu ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria




11. zenbakia

2015eko
apirilaren 2tik
apirilaren 15era arte

Zabor gutxi birziklatzen dugu

Hondakinak birziklatzeko lagungarria da gaika biltzea. Uribe Kostan ia zarama guztia betiko edukiontzira doa. ▶22



«Erreferentea izatea gustatuko litzaidake, Txema Olazabal izan zen moduan»

Golf-jokalari barrikoztarra bidea egiten eta arrakasta lortzen dabil Arizonan.

Jon Rahm (Barrika, 1994) zazpi urte gaz hasi zen "bolari jotzen"; 13 urte gaz "serio" hartu, Ander Deuna

Ikastolan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu, eta Madrilera joan zen; han, batxilergoa egin bitartean, golf entrenamendu profesionalak egiteko. Gero, Madriletik Arizonara: golfean izen ona egiten dabilen heinean, kirol-bekaren ondotik, hango unibertsitatean Komunikazioa ikasten dihardu. ▶16

Ttipi-ttapa Erandiotik Bilbora ▶10



Tartangan berdegune zabala egokitzeko lanak abiatu ditu Erandioko Udalak. Maiatzean zabalduko dute. ▶5

«Zintzotasunez» jokatu zuela esan die Eusko Legebiltzarreko kideei Leioako alkate ohi Eneko Arruebarrenak. ▶6

Leioan edukiontzi marroiak ipiniko dituzte Pazko Astetik aurrera. Herriarrei argibideak emango dizkiete. ▶7

Berangoko Udalak 9,9 milioi euroko aurrekontuak onartu ditu; zenbateko horren %40 inbertsioetara bideratuko dute. ▶9



Getxo ezagutzeko hainbat irteera egongo dira aukeran. © GETXOKO TURISMO-BULEGOA

Bisitarien zatia aukera ugari

Eskaintza honako ataletan egongo da banatuta: Getxo Kosta, Getxoko Monumentuak, Getxo Aktiboa eta Getxo Gastronomikoa.

Turismo-denboraldia hasia da daborduko Getxon. Joan den martxoaren 27an Bizkaiko Zubiaren ondoan aldi baterako turismorako informazio-bulegoa zabaldu zutenean eman zioten hasiera denboraldiari, urriaren erdialdera arte luzatuko dena. Hala, 32 plan eta jardueraren berri emateko, Udal Turismo Unitateak liburuxka berria argitaratu du, bere baliabide eta zerbitzu nagusien gaineko xehetasunak jasotzen dituen, tokiko hainbat enpresaren partaidetzagaz.

Eskaintza honako ataletan banatuta dago: Getxo Kosta, Getxoko Monumentuak, Getxo Aktiboa eta Getxo Gastronomikoa. Arduradunek azaldu dutenez, «nabarmentzekoa da "irteera ziurtatuta" duten jardueren eskaintza». Atal horretan, ohiko bisitaldi antzeztuak batera, belaontzietan txangoak eta kirol astiko beste ekitaldi batzuk egongo dira.

Turismo Bulegoa

Pasa den hilabete amaieran Bizkaiko Zubiaren ondoan zabalduak aldi baterako turismo informazio-bulegoa egunero egongo da irekita, goizez zein arrastiz, urri erdira arte. Zerbitzu ho-

rien helburua bisitariari eskaintzen zaion informazioa eta arreta ahalik eta gehien indartzea da.

Ereagako turismo-bulego nagusia Aste Santuko egun guztietan egongo da zabalik. Halaber, aurten opor egun horietatik aurrera, telefono mugikorrak dohainik kargatzeko zerbitzua eskainiko dute bertan. Zerbitzu horregaz, aldi berean 6 pertsonari eman ahal izango zaie aukera euren telefonoa 15 minututan kargatu ahal izateko. Horretarako, txanpon bat beharko da, leihatila bat izango balitz bezala, telefonoaren bateria «era seguruan» kargatu ahal izateko, jakinarazi dute arduradunek; ondoren, erabiltzaileek txanpona berreskuratuko dute.

Merchandising berria

Turismo Bulegoak udalerria sustatzeko produktu berri bi sortu ditu. Batetik, hiru iman: Portu Zaharraren, Bizkaia Zubiaren eta Aixerrotaren irudiak (bakoitzak 1,50 euro balio du) eta, bestetik, euritako tolesgarria (11 euro). Gainera, udalerria ezagutarazteko, lekuko irudiak dituzten hurrengoak ere badaude: eskumuturreko erlojua (18 euro), poltsa hiru txapakaz (2,50 euro), postalak (0,30 euro), kamisetak (8 euro umeentzat eta 10 euro nagusientzat) eta kirol-jertsea (15 euro). Horiez gainera, libreta eta boli-grafo bat (2,50 euro), Portu Zaharreko eta Bizkaia Zubiko posterrak (2,50 euro), eta doako pegatinak ere badaude, azal zurietan ipintzekoak (ibilgai-letan eta abarretan) ere bai. ◀

Info+: www.getxo.eus/eu/turismo

Udalaren helbide guztiak .eus domeinuan daude daborduko

Udaleko webguneko helbidea eta bere posta elektronikoko helbide denek daborduko .eus domeinua daukate. Denboraldi batez, berrira bidaltzera ohitu arte, webgunean sartzeko

eta helbide zaharrera (.net) bidaltzen diren mezuak berrira berbidaltzeko dira. Imanol Landa alkateak ekimenagaz bat egiteko gonbitea luzatu du, «Eus-kadi sare globalean kokatzeko». ◀

Kultur Etxea azken txanpan

Romo Kultur Etxea eraikitzeke proiektuaren 2B fasea onartu ostean, lanak azkeneko txanpan sartuko dira, 2016. urtearen hasieran funtzionatzen hasteko asmoagaz. Fase horren lizitazioarako prozesua 2,43 milioi euroko aurrekontuagaz abiatu zuten, eta 49 aste epea izango dute lanak egiteko, hau da, eraikinaren barrualdea egokitzeko. Eraikin horretan energia-eraginkortasuna ahalik eta handiena izatea gura dute. Horretarako, hainbat sistema di-



Proiektuaren 2B fasea abiatu dute daborduko.

seinatu dituzte, barbarako: fatxadarako «geruza bikoitza» eta fatxaden tratamendua eguzkia kontrolatu ahal izateko. Urtero, instalazioak 250.000 pertsonen baino gehiagok erabiliko dutela aurreikusi du Udalak. ◀

Romoko umeen aisialdirako elkarte zabala sortu dute

Itzubaltzeta/Romoko hainbat auzo-ikide inguru horretan haurrentzat eta gazteentzat jolasteko leku ezagatik kezkatuta daude. Hori dela eta, Itzubal Txiki izeneko elkarte eratu dute, auzo horretako 5 eta 15 urte arteko neska-mutilei begirako aisialdi-taldea. Horren nondik norakoak apirilaren 11n, zapatuagaz, aurkeztuko dituzte Itzubaltzeta/Romoko kultur etxean, 18:00etan. Dagoeneko zabaldu dituz-

ten txostentxoaren arabera, 5 puntu izango dituzte oinarritzat: amalurra- ren defentsa, errespetua eta ezagutza sustatzea; inklusiboa eta parekidea izatea, inor ez baztertzeko edozelako ezaugarriengatik; herritik herriarentzat izatea, auzoko beharriaz erantzuteko; euskalduna eta euskal kulturaren aldekoa, transmisioa bermatzeko; eta parte hartzailea, pertsona ororen ekarpenak jasotzeko. ◀



Merkaromo zaharberrituta. Zubieta kaleko Merkaromo azoka birsortu eta modernizatu dutela aitortzen dute arduradunek, «ohiko izaera hurbila eta tradizionala mantenduz». Ohikoez gain, astero baserritar bat hurbilduko da bertara bere ortuko produktuak eskaintzera eta saltzera.

Getxo

«Jolastokiek harremanetan eta ikasketan ere garrantzia dute»

Zabala eskolako 9 eta 11 urte arteko neska-mutiek ikastetxeko jolasgunea eraldatzeko Elkartoki proiektuan parte hartu dute. Apirilean esperientziak jasotzen dituen liburuxka bat eta hainbat erakusketa egingo dituzte.



Proiektuak hiru hilabete iraun zuen, baina hurrengo ikasturtean bederatzi hilabetekoa izatea gura dute antolatzaileek.

IKER RINCON MORENO ►

Algortako Zabala eskolako 9 eta 11 urte arteko neska-mutiek jolastokia euren desiren arabera eraldatzeko Elkartoki proiektuan parte hartu zuten, Ane Abarrategigaz batera. Prozesua hiru hilabetez luzatu zen, eta umeek prozesu artistikoetan eta parte hartzean trebatzeko aukera izan zuten.

Zer da Elkartoki egitasmoa?

Eskolako patioetan garatzeko programa artistiko esperimental da Elkartoki. Horren helburua eskolako patioan ematen diren dinamika komunita-

rioak eta sozialak nolabait eraldatzea da. Hori egiteko, diseinu parte-hartzaile batean oinarritutako prozesu bat proposatzen dugu, patioaren erabil-tzaileak, hau da, umeak, teknika artistiko eta arkitektonikoen bitartez etorkizuneko patioa asmatzeko. Ondoren, prototipoak eraikitzen dituzte, eta azkenik, patioa eraldatzen dute auzolanaren bitartez.

Nork bultzatu du proiektu hori?

Proiektua guk bultzatu dugu: Tipi Studioak. Kooperatiba bat gara, eta Eusko Jaurlaritzaren Sormen Lantegiak programaren diru-laguntzari esker lortu dugu proiektua abiaraztea.

Zelakoa izan beharko luke umeentzako jolastoki egoki batek?

Guk ikusten dugu gaur egun badaudela jolas batzuk beste erabilera batzuen gainetik geratzen direnak, esate baterako, futbolagaz eta pilotagaz zer ikusia duten jolasak, hau da, kirolean zentratutakoak. Halaber, orokorrean diseinuak oso estandarizatuak dira, oso antzekoak ia eskola guztietan. Hala, gure ustez, espazio horiek bestelako erabilera batzuk hartu beharko lituzkete, badutelako garrantzia harremanetan eta ikasketa prozesuetan, besteak beste. Aniztasuna eta jolasa bultzatu behar dute, baina baita ere bertan bizi eta egoten diren pertsonen

identitatea eta desirak islatu ere. Horretarako, denon artean edo komunitate horrek diseinatutakoa izan beharko luke, ez goitik datorren zerbait.

Daborduko lehenengo edizioa amaitu duzue, zelako esperientzia izan da?

Bi eskolatan egindako esperimentu bat izan da: Bilboko Karmelo ikastolan eta Algortako Zabala eskolan. Umeak hainbat tailer egin ditugu. Hasierakoetan, patioa aztertu eta hausnartu genuen, jolastokiaren erabilaren eta jarreraren inguruan. Horretarako, jolasak egin genituen, hala nola, detektibearen rola hartzearena. Umeak fitxa batez zihozten patioa behatzen, ezaugarri fisikoak eta beste-lako umeen jarrerak kontutan hartuz. Komikiak ere egin zituzten, patioan ikusten zutena kontatzeko eta horren inguruan hausnartzeko; baita horma-irudiak ere. Horietan, kolore gorria eta berdea erabili genituen, lehenengo gustuko ez zutena islatzeko, eta bigarrena gustuko zutenerako. Hortik, tailer ezberdinen bitartez neska-mutil horien desirak zeintzuk ziren zehaztea lortu genuen, hau da, zertarako nahi zuten patioa. Ondoren maketak egin genituen, muralak diseinatu eta abar. Gero taldetan banatu genituen auzolanak burutzeko. Umeak lan egitea oso atsegina izan da, baina laburregia. Hiru hilabete eman ditugu toki bakoitzean. Hurrengo ikasturterako gure asmoa da bederatzi hilabeteko prozesua izatea, edukiak gehiago landu ahal izateko. ◀



Ertzean

LAURA MINTEGI LAKARRA
Idazlea eta irakaslea

Mozal Legea indarrean

Martxoaren 26an onartu du Kongresuak Seguritate Legea (Mozal Legea), eskubide oinarritzkoenak birrintzera datorrena beste bi legeekin batera: Zigor Kodearen aldaketa eta Yihadismoaren aurkako Legea. Espaniarren %82ak uste du legea ez dela indarrean jarri behar. Nazio Batuek ere bai. NB arduratuta daude Espainian Giza Eskubideak nabarmen urratzen ari direlako PPrek erruz: inmigranteak itzuli, espetxe-zigorak metatu, eta orain adierazpen askatasuna neurrigabe murriztu.

Noizbait nire burua ikusi dut gazteei azaltzen zer den diktadura bat. Orain apenas ez dut iraganera jo behar zer den azaltzeko. ◀



GetxoGas

Txartel hau
aurkezten baduzu

%50eko

deskontua

izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)



Txoritokitik

IÑAKI
ZARRAOGA ZABALA
Getxoko alkate ohia

Euskara ere gure esku dago

Korrika bukatu berri da eta izugarrizko arrakasta izan du. Pozgarria, benetan, jendearen erantzuna eta txalogarriak AEK eta oro har euskalduntze lanetan dabiltzan irakasleak eta ikasleak.

Ahalegin horien guztien aurka jarduera asko ikusi ditut euskararen alde agertzen diren pertsonen egindakoak. Esaterako, lau adibide idatziko ditut, nik bizi izandakoak, horietako batzuk Algortan.

1) Erakunde publiko batean kultura eta euskara arloan hiru arduradun, hirurak euskaldunak ziren eta euskara ama-hizkuntza zuten. Hirurak aritzen ziren barra-barra gazteleraz, ez behin, gehienetan baizik.

2) Polikiroldegi batean ikastola bateko umeak ari ziren jolasen eta andereñoa gazteleraz ari zitzairen. Polikiroldegiko langile bat inguratu eta errieta egin zion andereñoari umei euskaraz ari ez zitzaielako.

3) Euskararen aldeko talde batekoak ziren eta kaleetan bere taldearen kartelak ari ziren ezartzen ormetan, euskararen aldeko eta Administrazioaren aurkako kartelak. Lasai-lasai zihoazen espaloitik beraien artean gazteleraz hizketan.

4) Mutil kuadrilla bat osatzen zuten eta alderdi politiko euskaltzale bateko kideak ziren. Elkartzen zirenean gaztelera zen nagusi berein artean eten gabe. Baina horietako lagun berezi eta militante bat ageri bazen, hizkuntzaz aldatu eta euskaraz hasten ziren.

Azken hori niri ere gertatu zait behin baino gehiagotan. Kaletik nabilela hantxe ikusten dut mutil talde bat, edo ama bere semearekin, edo... Gazteleraz ari dira, baina urrutitik ikusi naute eta bat batean euskaraz hasten dira mutilak, edo ama, edo...

Euskara aurrera ateratzeko herri hau lan asko ari da egiten esparru ezberdinetatik, baina euskara jakitetik erabiltzera alde handi dago eta zulo hori ixten gogor saiatu behar dugu. Hitz egin dezagun euskaraz. Orduan izango gara sinesgarri. Gure esku dago. ◀

Getxo

Udaltzaingoak salaketa gutxiago jaso zituen iaz

Orokorrean salatutako delituen eta falten kopuruek behera egin arren, ebasketa-delituen salaketek gora egin dute.

Udaltzaingoan salatutako delituak eta faltak %9,13 gutxitu ziren 2014an, aurreko urteko datuak alderatuta. Izan ere, iaz 1.251 salaketa egin ziren, 2013an baino 118 gutxiago, Getxoko Udalak emandako datuen arabera.

Getxoko Udaltzaingoaren iazko memorian agertzen denez, «ebasketa-falta» kategorian ere jaitsiera nabarmena izan da, salaketa kopuru gehien jasotzen duen kategoria izaten jarraitzen badu ere: 331 guztira 2014an. Ondoren, «kalteak» atalaren barruan bideratutakoak 314 dira. «Gauzetan indarrez egindako lapurretak» 173 izan ziren pasa den urtean.

Ebasketa delituak gora

Salaketa-kopuruak behera egin du



Udaltzaingoan salatutako delituak zein faltak %9,14 gutxitu ziren iaz.

ondoko arrazoi-kasuei dagokienean, besteak beste: edari alkoholikoen eta drogen eraginpean gidatzeagatik; pertsonen aurkako indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurretengatik; ordena publikoaren aurkako delituengatik; segurtasun kolektiboaren aurkako delituengatik; lesio-delituak;

familia barruan ematen diren tratatu txarrak; droga-trafikoa eta sexu-askatasunaren aurkako delituengatik, eta abarregatik.

Bestalde, ondarearen aurkako eta ebasketa delituengatik egindako salaketak, ostera, apur bat igo direla ohartarazi dute. ◀

Iñaki Gamero izango da Getxoko PPreh hautagaia

Iñaki Gamero 49 urteko abokatua izango da udal hauteskundeetarako Getxoko PPreh hautagai nagusia. Bi legealdi daroatza Getxoko zinegotzi, hirigintza arloan. Aurretik ere zortzi urte eman zituen Leioako Udalean PPko talde-bozeramaile bezala. Gamero abokatua da ofizioz, publizitatean lizentziatua eta 22 urte daroatza alderdi popularrean. ◀



Iñaki Gamero ordezkaturiko du Marisa Arrue.

Garapeneko Lankidetzako proiektuetarako 308.000 euro

Apirilaren 27ra arte egongo da zabalik Garapeneko Lankidetzako proiektuetarako diru-laguntzak eskatzeko epea. Aurten, Getxoko Udalak 308.000 euro zuzenduko ditu arlo horretako egitasmoetara. Eskakizunak Internet bidez aurkeztu beharra dago, Udaleko administrazio elektronikoko bulegoaren bitartez. Laguntza hauek lankidetzaren alorrean diharduten elkar-

te edo pertsona juridikoek eskatu ahal izango dituzte. Udalaren arabera, zenbatekoa hala banatuko dute: 260.000 euro txirotutako herrialdeetan proiektuak finantzatzeko; 43.000 euro getxoxtarrei zuzendutako sentsibilizazio eta garapeneko hezkuntza-proiektuetarako; eta 5.000 euro krisi egoerei aurre egiteko giza ekintzetarako. ◀

Info+: www.getxo.eus

Udalak 65.000 euro bideratuko ditu heziketa alorrera

Getxoko Udalak aditzera eman duenez, guztira 65.000 euro bideratuko ditu aurten heziketa alorreko diru-laguntzetara. Laguntza horiek udalerriko umeen eta gazteen gurasoei zuzendutako interes publikoko eta sozialeko jardueretara bideratuta egon beharko dute, besteak beste.

Diru-laguntza horiekaz, neska-mutil getxoxtarren heziketa «orientatu, lagundu eta babestu» gura dute.

Bestelako ekimenak

Halaber, gurasoek ondorengo ekimen hauek ere egin ahal izango dituzte emandako diru-laguntzakaz: ingurumen arloko hezkuntza proiektuak eta jarduerak; adimen handiko ikasleei begirako eskolaz kanpoko jarduerak; gela egonkorretan eta ikasle gorrien programen barruan garatzeko jarduerak; eta Lehen Hezkuntzako eta Helduentzako ikastetxe publikoetan garatutako eskolaz kanpoko jarduerak zein ekimen osagarriak. ◀

Info+: www.getxo.eus

Erandio

Tartangan, parkea gura dute



Berdegune handia sortzeaz gainera, aparkalekua asfaltatuko du Udalak.

Astialdirako berdegune zabala egokitzen dabil Erandioko Udala Tartangan, horren «falta nabarmena» zela iritzita.

Pasa den martxoaren 11n hasi ziren Alzagako kiroldegia-
ondoan «astialdirako eta pa-
seorako berdegune zabala bat
egokitzeko lanak», Erandioko Ud-
al Gobernuak zabaldu duenez. «Astia-
ldi eremu baten falta nabarmena da»
Erandioko auzo jendetsuenetarikoa
den Alzagana, eta «herriar askoren
eskariari erantzun» gura dio Udalak.
Konponbide hori epe ertainera begi-
rakoa da, inguru horretan babes pu-
blikoko etxebizitzak eraikitzea aurrei-
kusita dago-eta. Edonelan ere, Ud-
al Gobernuak «pausoa aurrera eman eta
gaur egun bertan behera utzita da-

goen orubeari erabilera eman» gura
izan dio. Daborduko eginda daude
berdegune hori atondu eta sortzeko
lehenengo lanak: lurzorua berdinu
eta garbitu zuten, eta hondarrak hon-
dakindegira eroan zituzten.

Txakurak gertu, baina ez barruan
Ondoren, inguruaren perimetroa itxi
zuten; izan ere, pertsonak erabiltze-
ko eta gozatzeko baino ez da izango,
eta debekatuta egongo da txakurkatz
igarotzea edo txakurak bertan egotea.
Inguruan bada txakurrek jolasteko eta
txakurak solte eroateko eremu bat.

Egunotan, landare-lurra hornitu
eta lantzen dabilta, harriak kentzen
eta haziak ereiten. Eguraldia lagun,
lanak apirileko hirugarren asterako
amaituko ei dituzte; dena dela, ere-
mua bi edo hiru astez egongo da itxita,
haziak erne daitezen eta ingurua bela-
rrez guztiz estalita gera dadin. ◀

Erabakitze eskubidea ehuntzen dabil GED

Pasa den zapatuan Alzagako Ja-
do kalean egin legez, Erandioko
Gure Esku Dagok Ehuntze Eguna
bitarteko ekimena egingo du Astrabu-
duan datorren apirilaren 12an, dome-
ka. Erabakitze eskubidearen aldeko
askotariko taldeak zabaldu duenez,
Lurberri kalea 12:30etik 14:30era har-
tuko dute eta, bertan, «ehunka per-
sonen borondatea ehunduz eraikiko
dugu gure etorkizunaren jabe izateko
hautetsontzia». Izan ere, oihalez edo
ehunez osatuko duten hautetsontzian
irudikatu dute ideologia eta pentsa-
mendu ezberdinekoen ideien eta bo-

rondateen batuketak, erabakitze-
ko eskubidea egikaritzeko bide komunean
murgiltzeko motxila izango dena.

Astrabuduko ekimena

Erandioztarrei eskatu diete Lurberri-
tik pasatzeko, oihal zati bana bertan
pertsonalizatzeko, eta aste bi beran-
duago, apirilaren 25ean, udalerrri mai-
lan egingo duten Ehuntze Eguna «jai
erraldoian» parte hartzeko. Horrez
gainera, ekainaren 21a, domeka, agen-
dan libratu edota gordetzeko eskatu
dute Gure Esku Dagoko kideek, orain-
dino zertarako argitu ez duten arren. ◀

Herritarrentzako informazio-panel elektronikoa ipini du Udalak Alzagana

Erandioko Udalak informazio-panel
elektronikoa jarri berri du Alzaga
auzoan, «herriarrek udalerriko egu-
nerokotasunaren berri izan dezaten».
Bertan, honako hauek agertuko dira:
ordua, tenperatura, udal iragarkiak,
bandoak, oharak eta herriko elkar-
teek antolatutako ekintza soziokultu-
ralen eta kirol jardueren informazioa.
Panel elektronikoa bana badago Eran-
diogoikoan, Enekurin eta Astrabu-
duan ere bai. Aurretik, 2010ean, beste
lau pantaila elektronikoa ipini zituen
Udalak. Hurrengo urtean «utzitza» zeu-
dela salatu zuen PSE-EEK. ◀

Elikagaiak manipulatzeko txartela eta ikastaroa, Alzagana

Datorren apirilaren 15ean, eguaz-
tena, elikagaiak manipulatzeko
ikastaroa egin eta, ondorioz, txartel
homologatua eskuratu ahal izango
da Erandioko Alzaga auzoan. Izan
ere, Barakaldoko Haientzat elkar-
teak emango du lau orduko tailerra,
Erandioko Emakumeen Elkar-
te Sozio-Kulturalaren egoitzan 16:00etatik
20:00etara. Prezioa 30 eurokoa da eta
izen-ematea apirilaren 8ra arte edo le-
kuak amaitu arte egin ahal izango da,
Haientzat elkartearen posta elektroni-
koko helbidera mezu bat bidaliz. ◀

Info+: haientzatelkartea@gmail.com / 615 714 321

PINTXO POTE
OSTEGUNETAN
12:00 ETATIK
15:00ak ARTE
Portu Zaharra Bar

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Aituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaitan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

fugu
world fusion sushi & sashimi
Get it faster, enjoy it longer, eat it traditionally.
www.fugusushi.com
Erandio Churrua Kalea 2 (anjo) - Bidea Zubia aurrean - Astea - GETXO
944 808 796
Baserata-Ofertas Orto eta Lino

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak
gura izanez gero,
etsera eroango dizugu
egunkaria!!!
Algortako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34

30. Urteurrena
XURRUT
Pasa - Bar - Munka Luzean
Bertan egindako pizza & pasta
Udan Jazazaldia terrazan
946 771 389 xurрут.com

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.
Harritzeko moduko kalitatea!
-Garbiketa orokorrak
-Mantentze garbiketa
-Garbiketa industrial
-Itsasontzi garbiketa
-Ospital garbiketa
-Elikagai Industriak igienizatzea,
garbitzea eta desinfektatzea
-Legionellaren kontrako tratamenduak
-Airestatze tutuak, aire girotuak
eta hodi industrialak garbitzea
-Lan osogarria
Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com



Zuhaitz baten pean

ENARA
DIEZ OYARZUN
PSE-EEko ordezkaria

Emakumeak atzo, orain eta bihar

Ia egunero berri txarrak ditugu emakumeen inguruan, hilketak, tratu txarrak, murritzketak eskubideetan... Nabarmena da berdintasun falta dagoela eta iraingarria da ikustea gobernuak ez diola baliorik ematen kasu hain larri honi. Ezinezkoa dirudi oraindik hain atzeratuta ibiltzea emakume askatasun kohesioan. Egutero aldarrikatu behar izaten dugu oinarritzko printzipioak praktikan jartzeko. Adibidez hain garrantzizua den abortatzeko eskubidea edukitzea, nola izan daikete kontrakoa?

Nire ustez, arazo honen eragina txikitatik hasten da; emakumeen irudia zerbitzari bezala ikusi izan dugu, amamekin edo amekin: bai etxeko lanekin, bai umekin, baita senarrarekin ere.

Jostailu sexistak oparitzen dizkigute, neskei: panpinak, garbitzeko tresnak eta sukaldean aritzeko jostailuak; mutilei super heroiak, kotxeak, futbo baloia... Bestela, arraroa dela pentsatzen dute, neska bat futboleko? «Marritxikoa da» Nabarmena da txarto jokatzeko dugula eta aldatu beharra dagoela.

«Educación para la ciudadanía y los derechos humanos» ekimen ona izan zen gizartearen ikuspegia aldatzeko, baina garaiotan atzera goaz, irakasgai hau ez da ematen eskoletan; berri ere gobernuari esker.

Emakumeak beti oztopo mordoa izan ditugu eta gobernuak ez du asko laguntzen eskubideak eta diru laguntzak murritztean.

Bitartean, guk sozialistak, denok batera, diferentzia egin gabe, jarraituko dugu lanean indarkeria gehiago ez egoteko, lanean ez izateko diferentziak, errespetua menperatzeko, ama monoparentalei aurrera irteteko laguntzen, lanbide heziketan...

Garrantzitsua delako denok egin behar diogu aurre arazo larri honi eta ezinbestekoa da giza heziketa egotea leku guztietan. ◀

Leioa



Eneko Arruebarrenak ez zien oposizioaren Pinosoloren gaineko galderei erantzun.

Ardura publikoetan «zintzo» jokatu duela dio Arruebarrenak

Leioako alkate ohiak erakunde publikoetan «frogatutako gaitasuna eta profesionaltasuna» babestu ditu EAJk Eusko Legebiltzarrean. Gasteizko ganberan Arruebarrena Metro Bilbaoko zuzendari kargutik kentzea ala ez bozkatuko dute laster.

Erakunde publikoetan erantzunkizunak eduki dituen 16 urteetan «zintzotasunez» jokatu duela dio Eneko Arruebarrena Leioako alkate ohiak. Bere berbetan, horrek «zilegitasun osoa» ematen dio gaur egun Metro Bilbaoren presidentea izateko. Eusko Legebiltzarreko Lurralde Politika eta Ingurumen Batzordearen aurrean egin zituen adierazpenak Arruebarrenak, martxoaren 25ean, EH Bilduk eskatutako agerraldian. Kale egindako Pinosoloko kiroldegiko proiektuaren gainean berbarik ez zuen egin udal agintari ohiak. Bere iritziz, aipatutako bilkurara, «Metro Bilbaoko zuzendari legez deituta» zegoen. Gaineratu zuenez, «daborduko bost urteetan zehar eman izan ditut azalpenak udal batzar eta Leioa Kirolak erakundeko batzorde askotan». Amaitu zuenez, «Fiskaltzak edo epaileak eskatzen baldin badu, lasaitasun osoz joango naiz beraien aurrera», PPK aurkeztutako salaketa berbagai. EH Bildu, PSE-EE, PP eta UPyDren galderei ez zien erantzun gura izan Arruebarrenak.

Bitartean, Lurralde Politika eta Ingurumen Batzordera ere deitutako Ana Oregi sailburuak Eneko Arruebarrenaren «gaitasuna eta profesionaltasuna» defendatu zituen, «edozein zalantzaren gainetik». Izan ere, EAJk

gaur egun Metro Bilbaoko zuzendaria denaren kontrako «lintxamendutzat» jotzen du Pinosolo auzia. Are gehiago, Oregik maiatzeko udal hauteskundee-tako hurbiltasunagaz lotu zuen gaitzaren alderdiek horregaz «jolas-ten» ibiltzea. Halaber, Leioako alkate ohiaren errugabetasun-presuntzioari heldu zion Lurralde Politika sailburuak, bere agerraldian.

Arkaitz Fullaondo Leioako EH Bilduko zinegotziak eta udal hauteskundeetarako hautagaiak «negargarritzat» jo zituen Arruebarrenaren adierazpenak, agerraldiaren ostean. «Beste behin, mutu geratu da, iseka eginez Gasteizko legebiltzarrari eta herritarrei», adierazi zuen. «Agerikoa da EAJk gaia isilpean mantendu gura duela, hain zuzen, irregulartasunekin zuzeneko harremana daukatelako», Fullaondoren iritziz.

Eusko Legebiltzarrean laster bozkatuko dute Arruebarrena kargugabetzea ala ez, oposizioak eskatuta. Pinosoloko proiektuaren gaineko ikerketa udal batzordeak «ustelkeria zantzu garbiak» azaleratu zituen iazko azaroan. Eneko Arruebarrena alkate ohi eta Jon Loizaga Kirol zinegotzi ohi lotu zituen ustezko irregulartasunakaz. Loizagak, oster, ez zuen legebiltzarkideen aurrean aurkeztu behar izan. ◀

Etxebizitza hutsak alokatzeko akordioa Jaurilaritzagaz

Udalak eta Eusko Jaurilaritzak sinatu berri duten akordioari esker, Leioan hutsik dauden 852 etxebizitzetako jabeek eta «arrazoizko» alokairua gura duten herritarrek Bizigune eta ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) egitasmoakaz lotutako kudeaketa denak egin ahal izango dituzte udal bulegoetan. Mari Carmen Urbieta alkateak azaldu duenez, egindako azterketaren arabera, 582 leioztar dago babespeko alokairuzko eskatzaileen zerrendetan. Horietatik 150 bat lagun 30 urtetik beherako gazteak dira. ◀



69 edukiontzi marroi ipiniko dituzte.

Pazko Astea hasiko dira edukiontzi marroiak jartzen

Pazko Astea hasita, etxean sortutako hondakin organikoak, gordinak ala kozinatuak, batzeko 69 edukiontzi jartzen hasiko dira udalerriko kaleetan. Horiek denek zabaltzeko sistema elektronikoa berritzailea edukiko dute. Bosgarren edukiontziaz, edo edukiontzi marroiagaz, bat egiten duen sendi bakoitzari material organikoa batzeko keta emango diote doan. Denetara, 4.500 kit banatuko dira apirilaren 7tik aurrera udaletxean, Udal Bulego Teknikoan (Errekalde plaza, 1), Pinuetako udal bulegoan (Langileria, 202) eta Informazio bulegoan (Independentzia, 10-behea).

Halaber, hilaren 7tik 10era, informazioa emateko karpak jarriko dute Sakoneta kiroldegia kanpoaldean, Udondoko bulegoan, Txorierrin eta Lamiakon, hurrenez hurren. Azkenik, apirilaren 13an Basaez auzoan jarriko dute. Informazio guneen ordutegia 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:00etara izango da.

«Garrantzitsua da aipatzea ezin dela plastikozko poltsarik erabili, bakarrik poltsa biodegradagarriak, kitean datozenak bezalakoak», gogoratu du Mari Carmen Urbieta alkateak. Batu ostean, hondakin organikoak Bizkaiko Konpostegira, Artigasera, eroango dituzte, konposta egiteko. ◀

Leioa

Udal administrazioa hurbilago

Leioako Udala lanean dabil administrazio-izapideak bateratu eta herritarrei horiek egiteko erraztasunak emateko; eskuliburua egin eta arreta-bulegoak aldatuko dituzte.



Urtarrilean zabaldu zuten Lamiakoko herritarren arretarako udal bulego berria.

Eudelen bitartez, Bizkaiko hamar udalerrigaz eta Gipuzkoako beste bategaz elkarlanean dihardu Leioako Udalak, administrazio-izapideak bateratu eta herritarrei horiek egiteko erraztasunak emateko asmoz. Lehenengo eta behin, *Prozeduren eskuliburua* osatu gura dute, gure kasuan, leioaztarrakaz harremanetan dauden udal sail dene-tako lana arrazionalizatu eta bateratzeko. Mari Carmen Urbietta alkateak azaldukoaren arabera, egin daitezkeen tramiteak ezagutzea emateko, 120 fitxa agertuko dira aipatutako liburuan: izapide horiek non egin daitezkeen, bulegoen kanpoko itxura eta datu nagusiak (ordutegiak, telefono zenbakiak, helbideak, eta abar).

Agintari leioaztarraren arabera, aldi berean udal langileentzako eta herritarrentzako gida izango da. Azken horiek «modu erraz eta erakarga-

rrian identifikatu ahal izango dute» izapide bakoitza non egin daitekeen. Gainera, eskuliburua agiri bizia denez, etengabe hobetu eta eguneratuko dena (berbarako, lege edo irizpide aldaketengatik), Udalak ez du bazter-tzen fitxa horietan informazio gehi-go eskaintzea; «besteak beste, Kultur Leioaren kasuan, egitaraua jar liteke», azaldu du Urbietak.

Mostradoreak kendu

Herritarren arretarako sailetan dauden mostradoreak kentzea ere aurreikusten du Udalak. Alkateak argitu duenez, «daborduko ekimen hori martxan jarri zen 2014ko azken hiru-hilekoan Diruzaintza sailean, uda-letxeke solairu nagusia eraldatzeko ideia-lehiaketa baterako deialdi baten bitartez». Filosofia berbera jarraituko ei dute Gaztelubideko udal bulego deszentralizatu berrian. ◀

San Juan jaietako kartel-sariketa abian

Daborduko abian da aurtengo San Juan jaien irudia izango dena aukeratzeko lehiaketa. Udaleko Kultura Sailak zabaldu duenez, interesa daukaten lagun denak aurkeztu ahal izango dira sariketara. Gainera, kartel bat baino gehiago aurkezteko aukera dago, goiburu desberdinak erabiliz; betiere aurreko urteren batean edo beste lehiaketaren batean saritu bako lanak badira. Horiek denak aurkezteko azken eguna apirilaren 27a, astelehena, izango da.

Sariari dagokionez, maiatzaren 8an, barikua, banatuko dute Aterpe

Leioa Gaztegunean. Ekitaldia 18:30ean izango da eta irabazleak 800 euro jasoko ditu. Bestalde, lan guztien erakusketa jarriko dute gaztegunean.

Lehiaketaren oinarri dagokienez, kartela egiteko teknika libre izango da, eta koloretan edo zuri-beltzean izan daiteke; baina neurri zehatz batzuk eduki beharko ditu, beti ere euskarri zurrunean, eta halabeharrez agertu beharko da Leioako jaietako ohiko bereizgarriren bat. Oinarriak, udaletxean, Kultur Leioan eta bestelako udal egoitzetan eskura daitezke. ◀

Info+: 946 072 578

European Blues Challenge txapelketa irabazi du Bruselan Travellin' Brothers bandak

Martxoaren erdialdean Bruselan ospatutako European Blues Challenge txapelketaren bosgarren edizioa irabazi zuen Travellin' Brothers talde leioaztarrak. Horri esker, Europa osoko blues jaialdietan jotzeko aukera edukiko du seikoteak hurrengo hilabeteetan, berbarako: Sierre Blues (Suitza), Hondarribia Blues (Euskal Herria), Notodden (Norvegia), Blues in Hell (Norvegia), Frederikshavn (Danimarka) eta Lucerna Blues Festival (Suitza) jaialdietan, hurrenez hurren. Bruselan Espainiaren izenean parte hartu zuten Travellin' Brothers talde



leioaztarrak, hainbat herrialdetako taldeakaz lehian. *Magnolia route* (Gaztelupeko Hotsak) bere azken diskoa lau haizetara zabalduz, hamargarren urteurrenaren gainera, badu zer ospatu, beraz, blues banda ezagunak. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO
IKASTOLA

0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez! Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net

hiruka LAN-ESKAINNTZA

ADMINISTRARI-KOMERTZIALA BEHAR DUGU hirukan publizitateaz arduratuko den komertzial baten bila gabilta.

EZINBESTEKO BALDINTZAK:

- Lan komertzialetan eskarmentua izatea.
- Uribe Kosta komertzialki ezagutzea.
- Euskalduna izatea eta gaztelaniaz ondo moldatzea.
- Komunikazio gaitasuna, ahozkoa zein idatzizkoa.
- Harremanetarako gaitasuna eta izaera dinamikoa.
- Autoa eta gidabaimena izatea.

KONTUAN HARTUKO DA:

- Tokiko hedabideetan eskarmentua.
- Uribe Kosta ondo ezagutzea.
- Lan-taldean jarduteko gaitasuna.

ESKAINNTZEN DA:
Proiektu berri eta erakargarri honetan parte hartzea.

Curriculumak posta elektronikoz bidali beharra dago: hirukakoop@hiruka.eus

Sopela

Urepel abesbatza, ikaskuntzan sakontzeko proiektu berria



Momentuz astelehenetan daukate hitzordua, Kurtzion.

Musikagaz lotutako elkarte berri bat jaio zen Sopelan otsailean: Urepel abesbatza; 16 lagun baino gehiago elkartu dira, gehienak sopeloztarrak, denak abesbatzetan ibilitakoak, eta «elkarregaz abesteko gogo itzela» dute. Gerba Etxebarria da abesbatzaren lehendakaria, eta dioenez, musikarekiko afizioa eta pasioa dira Urepel abesbatzaren oinarri: «Garai eta jatorri ezberdinetako abesbatzetako musika interpretatu gura dugu. Gure helburua da musikaren ikaskuntzan sakontzea, hobetzea eta zaintzea». Horretarako, beste abesbatza batzuek harremanak izan gura dituzte: «Guretzat musika herri ezberdinen arteko kultur aniztasuna ezagutzeko erreminta izan daiteke».

Abesbatzak izen handiko zuzendaria du: Irma Rutkauskaite-Egiluz,

Sopelako auzokidea baina Lituaniako Musika Akademia Nazionalean abesbatzetako zuzendaritza-ikasketak egindakoa. Gaur egun, Rutkauskaitek Bizkaiko hainbat abesbatza zuzentzen ditu: Basauri Koral Elkartea, BB-kantuz, Emitenia Abesbatza, eta abar. Gainera, Vocalia Taldean abesten du. Bere hurrengo erronka, Sopelako talde berri hau gidatzea izango da.

Astelehenetan ipini dute momentuz hitzordua, 19:00etatik 21:00etara Kurtzio kultur etxean. Edozeinek parte har dezake abesbatzan, baina lehentziko dituzte esperientzia edo belarri ona duten auzokideak: «sarbide-proba txiki bat pasa beharko dute». Oraindino entsaioak barrura begira egin badituzte ere, ekainean Sopelako herriari aurkezpena egiteko asmoa dute. ◀

Info +: 635 75 33 23

Oposizioak atzera bota ditu Udal Gobernuak aurkeztutako proposamen ia denak

Martxoko bilkuran EAJk, PSEk eta PPk botoak elkartu zituzten EH Bilduren proposamenak atzera botatzeko.

Sopelako Udal Gobernuaren eta oposizioaren arteko distantzia gero eta handiagoa dela agerian utzi zuen martxoaren 25eko udalbatzak. Bertan, EH Bilduren Udal Gobernuak hainbat proposizio aurkeztu zituen, baina proposamen ia denak EAJ, PSE eta PP alderdiek osatzen duten oposizioak atzera bota zituen. Udal Gobernuaren arabera, oposizioaren helburua «Udala geldiaraztea da». Oposizioak, ostera, «akordiorako borondate falta» leporatu dio koalizio abertzaleari. Adostasunik ez, beraz, Sopelako udalbatzean.

Aurkeztutako lehenengo proposamenak Kurtzio kultur etxeagaz lotura zuen. Udalak «kurtziolagun» izeneko txartela sortu gura zuen, «Kurtziori bultzada ematen jarraitzeko asmoz». Proposamenak, baina, ez zuen babesik lortu, oposizioko hiru alderdien arabera aurkeztutako txosten teknikoak akatsak zituelako. EH Bilduk «aitzakia merketzat» jo zuen hori.

Teorian «izapide hutsak» ziren beste gai bi ere «blokeatuta» lotu ziren: batetik, Bizkaiko Ur Patzuegoaren estatutu aldaketak, eta bestetik, dirulaguntzen esleipena. Oposizioak tramitazio akatsak leporatu zizkion udal gobernuari.

Udal gobernu, haserre
Azkenik, EH Bilduk Sahararen gatazkaren «behin betiko konponbidea eta justizioa» eskatzen zuen proposizioa aurkeztu zuen, Fronte Polisarioak eskatuta. PSE emendakin bat aurkeztu zen, baina ez zuenez bilkura hasi baino lehenago erregistratu,

ez zuten bozkatzerik izan. Horren aurrean, ondorioz, oposizioak testuaren kontra bozkatzea erabaki zuen.

Sopelako Udal Gobernu oso hase-re agertu zen oposizioaren jarreragaz, koalizioaren iritziz: «Hauteskundeak gertu daude eta euren helburu bakarra Bildu zigortzea da, horretarako herri osoa zigortu behar badute ere. Gure proposamenen kontra bozkatzen dute beti, baina non daude euren alternatibak? Iparra galdu dute».

Oposizioak, bere aldetik, «elkarriketarako borondate falta» leporatu zion EH Bilduri, eta «negoziatzeko prest» agertu ziren. ◀

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

DIDAK
hAMILTON
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA
TF: 94 676 30 12
info@didakhilton.com

Hautzaindegitik batxilergora arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus


ander deuna
I K A S T O L A

Berango



Aurtengo aurrekontuen %40 inbertsioetara bideratuko ditu Udalak.

Onartuta 9,9 milioi euroko aurrekontuak

Iaz baino 3,3 milioi euro gehiago izango ditu aurtengo Udalak. Aurrekontuen %40 inbertsioetara bideratuko dute; Landaia jolasgunea estaltzeko, besteak beste.

Aurtengo ekitaldirako aurrekontuak onartu berri ditu Berangoko Udalak, 9,9 milioi eurokoak. Gauzak horrela, udalerriak iaz baino 3,3 milioi euro gehiago izango ditu aurtengo beharrezkoak diren gastuetarako. Izan ere, aurrekoetan ez bezala, aurtengo inbertsioak ere sartu dituzte aurrekontu horien barruan.

Berangok aurtengo izango dituen diru-sarrerak, guztira, 10,5 milioi eurokoak direla aurreikusi dute udal agintariek. Hortaz, gastuen eta sarreraren arteko aldea 640.000 eurokoa izango da 2015ean.

EAJ eta PSE-EEren aldeko botoak

Adostutako aurrekontu horiek EAJ eta PSE-EE alderdien aldeko botoak onartu ziren; Ezker Anitza abstenitu egin zen, eta EH Bilduk zein PPK, oster, aurkeztutako aurrekontuen kontrako botoa eman zuten.

Inbertsioek hartuko dute aurrekontuen %40: 3,9 milioi euro inguru; hori hala, udal arduradunen arabera,

«Berangok 6.925 biztanle dituela kontutan hartuta, Udalak 583,17 euro inbertituko ditu auzotar bakoitzeari».

Hirigintza-proiektuak

Diru-kopuru guzti horregaz, Berangoko Udalak Arene eta Arebeta inguruko gune industrialak urbanizatzeko eta Sabino Arana kalea eraldatzeko proiektuak gauzatu gura ditu, besteak beste.

Halaber, udalerriko umeentzako jolasleku berriak egiteko bideratuko dute diru-kopuru bat. Era berean, Landaia umeentzako jolasgunea estaliko dutela jakinarazi dute. Horrez gainera, kirol-gunean padelean jarduteko pista berri bi egingo dituzte eta futbol zelaiko aldagelak zaharberrituko dituzte.

Aurrekontuen bestelako %60 «eragiketa arruntetara» bideratuko dituzte, horiek dira: «pertsonal-gastuak, ondasun arruntak eta zerbitzuen gastuak, finantza-gastuak eta transferentzia arruntak».

Info+: www-berango.net

Barrika

Adin guztientzako ekitaldi ugari egongo dira apiril osoan

Apirila, Pazko Astea eta udaberria. Kontu ugari heldu zaizkigu kolpe batean, eta horiekaz batera ekitaldi ugari Barrikara. Bada, hilabete osoan zehar, haur, gazte zein nagusientzako hainbat ekimen prestatu dituzte kultur arduradunek. Lehenengo ekintza hilaren 8an izango da, eguaztenagaz; Kamishibai ipuin-kontalaria arituko da liburutegian 4 eta 12 urte arteko neska-mutilei istorioak kontatzen, 18:00etatik aurrera. Hurrengo egunean, hilak 9, pazko-arrautza tailerra egingo dute, lehen aipatutako ordu eta leku berean. Hilaren 10ean, familiar zinemas, *Las aventuras de Tintin: el secreto del unicornio* filmaz, gozatzeko aukera egongo da Goierriko Ander Deuna Kultur Aretoan, 18:00etan. Astebete beranduago, hilaren 17an, haurren eguna ospatuko dute liburutegian: ipuinak kontatu eta eskulanak egingo dituzte. Ekimena 5 eta 11 urte arteko neska-mutilei zuzenduta egongo da, eta aldez aurretik izena eman beharra dago. Hurrengo egunean, zapatuagaz, III. Ibilaldi Herrikoia egingo dute, Udaletxe plazatik abiatuta. Ibilbide bi egongo dira, luzea (16,6 kilometrokoa) eta laburra (3,1 kilometrokoa); hurrenez hurren 09:30ean eta 11:30ean abiatuko dira.

Gorliz

Landareen eta loreen laugarren azoka



© MADALEN GOIRIA

Aurtengo ere, landareen eta loreen erakustaldiaz gozatu ahal izango da apirilaren 12an, domekagaz, Gorlizko Elizaren plazan. Azokaren laugarren ekitaldi horretara hurbiltzen direnek mota askotako landare eta loreez gozatu ahal izango dute; eta horiek ikusteaz gainera, gustukoak dituztenak erosteko aukera ere izango dute. Hitzordua goizeko 10:00etan ipini dute, aipatutako lekuan. Hala ere, arduradunek jakinarazi dutenez, euria eginez gero, frontoian egingo dute azoka. Jardunaldiak arrastiko 15:00etara arte iraungo du.

Info+: www.gorliz.net

Aurrekontuak

Gastuak

Eragiketa arruntak

Pertsonal-gastuak:

1.455.430 euro

Ondasun arruntak eta zerbitzuen gastuak:

3.439.886,81 euro

Finantza-gastuak:

30.848 euro

Transferentzia arruntak:

759.000 euro

Kapital eragiketak

Inbertsio errealak:

3.919.681,80 euro

Finantza aktiboak eta pasiboak:

290.300 euro

Guztira: 9.895.146,61 euro

Sarrerak

Eragiketa arruntak

Zuzeneko eta zeharkako zergak:

1.260.000 euro

Tasak eta bestelako sarrerak:

552.000 euro

Transferentzia arruntak:

4.123.441 euro

Ondare sarrerak:

10.500 euro

Kapital eragiketak

4.590.044,19 euro

Guztira: 10.535.985,19 euro

Aldea sarrera-gastuak: 640.838,58 euro

Uribe Kosta

Ohitura osasuntsuak sustatzeko jaia

A bian da eskualdeko Osasun Jaia. Uribe Kosta Mankomunitateko Drogamenpekotasunari Aurre hartzeko Zerbitzuak hirugarrenez antolatu du ekimen hori, herritarren artean ohitura osasuntsuak sustatzea helburu duena. Horretarako, Uribe Kostako Mankomunitatea osatzen duten herrietako teknikariakaz eta politikariakaz batera hainbat ekintza antolatu dituzte datozen egunetarako. Ekimenak herriz herri izango dira, hau da, ez dira leku zehatz eta bakar batean izango. Hala, joan den martxoaren 25ean hasi zen programa ekainaren 3ra arte luzatuko da, eta egitaraua hainbat hitzaldi, tailer, jaialdi eta martxak osatzen dute. Apirilaren 7a Osasunaren Munduko Eguna da, 1948an Osasunaren Munduko Erakundeak hala izendatu zuenetik. Ordutik, osasuna sustatzeko hainbat inizatiba bideratu izan dira mundu osoan, tartean, gurean ere bai. ◀

Egitaraua

Apirilak 11, zapatua

10:00 Urdulizko IV. Txirixiri Ibilbide Osasuntsua (7 kilometro); Urdulizko udaletxetik abiatuta.

17:30 Scooter Master Class, Jose Sanchezek gidatuta; Sopelako Urgixieta plazan.

Apirilak 14, 21, 28 eta maiatzak 5, martitzenak

17:00-18:00 Zoru pelbikoaren gaineko ikastaroa; Plentziako Goñi Portalen.

Apirilak 14, martitzena

19:00-20:00 Estresaren kontrola gaur egun; Gorlizko Sertutxenan.

Apirilaren 15etik ekainaren 3ra arte, eguaztenero

11:00-13:00 Osasun Eskola programa; Gorlizko Sertutxenan.

Apirilak 16, barikua

12:30-13:30 Hipertentsio, diabetes eta asmaren gaineko berbaldia, Koldo Muñiz Estantonaren eskumenez; Gorlizko Sertutxenan.

Eskualdeko txakolina ezagutzeko irteerak

A urten ere, martxan ipiniko dute TxakoliBus egitasmoa. Horretan, Uribe Kosta eta Uribe-Bu troe eskualdeetako hainbat txakolin upategi eta garagardo-egile ezagutzeko hamabi irteera antolatuko dituzte. Lehenengoa apirilaren 4an izango da, zapatua; Bakioko Zabala Txakolina eta Urdulizko Etxeandia Garardauak ezagutzeko aukera egongo da.

Guztira, 12 irteera

Egitaraua 12 irteerak osatzen dute, apirilean hasi eta urriaren 10era bitartean gauzatuko direnak. Horietan guztietan, honako upategiak bisitatu ahal izango dira: Lezamako Magalarte Txakolina, Bakioko Abio Txakolina, Bakioko Ados Basarte Txakolina, Gatika-ko Butroi Upategia eta Gamiz-Fikako Uriarte Txakolina, besteak beste.

Irteerak Bilboko Moyua plazatik izango dira, goizeko 09:30ean; Mungia-ko udaletxeko autobus-geltokian ere

Hurrengo irteerak

Apirilak 4, zapatua

Zabala Txakolina (Bakio) eta Etxeandia Garardauak (Urduliz). Bazkaria Berangon edo Sopelan izango da.

Maiatzak 9, zapatua

Magalarte Lezama Txakolina (Lezama) eta talo tailerra. Bazkaria, Erandion.

Maiatzak 30, zapatua

Etxeandia Garardauak (Urduliz) eta Abio Txakolina (Bakio). Bazkaria, Armintzan edo Gorlizen.

egingo du geldialdia, goizeko 09:50ean. Autobusa 18:00etan itzuliko da aipaturako puntuetarantz. Bisita guztiak gidatuak izango dira, gazteleraz. Ekintza bakoitzaren prezioa nagusientzat 23 eurokoa da, BEZ barne eta 15 eurokoa 65 urte baino nagusiagoentzat zein 11 eta 17 urte bitartekoentzat; 10 urte arteko umeen sarrera 5 eurokoa izango da. ◀

Harremanetarako: 945 157 914

19. Korrika Asuan

Azkeneko txanpan ere, gurean izan zen; Erandion, hilaren 29ko goizaldean.





Gotzon Elortzaren seme Aitorrek egin zituen aktore lanak *Aberria* filmean. KARLA LLANOS

Hainbat film

Fiestas de Plencia (1927)

1927ko irailaren 1ean ospatutako San Antolin bezperako irudiak ageri dira.

Jose Antonio Agirre en New York (1942)

Getxoko alkate izandakoaren bizitza eta Eusko Jaurlaritzaren egitekoa ageri dira New Yorkeko erbestean.

Gotzon Elortzaren bilduma

Ereagatik Matxitxakora (1959)

Ereagako hondartzatik Matxitxako lurmuturrera doan kostaldea erakusten du.

Aberria (1961)

Gotzon Elortzaren aberriaren inguruko hausnarketa da. Garaiko kulturaren ordezkari garrantzitsuak ziren Balentin Enbeita, Jon Lopategi eta Victor Olaeta agertzen dira.

Elburua Gernika (1962)

Bermeotik Gernikaraino, Urdaibai guztia erakusten duen film dokumentala.



Historia irudietan

Euskadiko Filmatagia fundazioak Gotzon Elortza errealizadore algortarraren hiru dokumental ipini ditu sarean, beste hainbat pelikularen artean.

Euskadiko Filmatagia fundazioak apurka-apurka bere ikus-entzunezko funtsak eza-gutarazteko plana jarri du abian. Hala, 15 pelikula ikusgai ipini ditu bere webgunean; horien artean dira, berbarako, *Fiestas de Plencia* (1927) eta *Jose Antonio Aguirre en New York* (1942) dokumentalak. Film horiez gainera, filmategian dauden bilduma bi ere eskegi ditu lehenengo

fase honetan: batetik, 36ko Gerraren gainekoa, eta bestetik, Gotzon Elortza errealizadore algortarrak landutako hiru ikus-entzunezko osatzen duten sorta: *Ereagatik Matxitxakora* (1959), *Aberria* (1961) eta *Elburua Gernika* (1962). Elortzak berak 1963an egindako *Avignon* dokumentala, oster, ez dute bilduma horretan sartu.

Webguneko *Funtsak* atalean eskegitako irudiak hamarraldika eta bil-

dumaka daude banatuta. 1910etik hasi eta 80ko hamarraldira arteko epean egin ziren filmak hartu dira aintzat lehenengo fase honetan. Hilero film bat eskegiko du Filmategiak eta haren garrantzi historiko, artistiko edo kulturalaren arabera egingo du aukeraketa.

Gotzon Elortza

Euskarazko lau film labur grabatu zituen 1950eko hamarkadaren amaieran eta 1960koaren hasieran Gotzon Elortzak (Bilbo, 1923-Getxo, 2012). Parisen bizi zen film horiek egin zituen garaian, muga ezkutuan zeharkatzen zuen zinema-zuzendariak lanok egi-

teko; euskara bezalako hizkuntza gutxituek aurrera egiteko ikus-entzunezkoak lanak behar-beharrezkoak zirela uste baitzuen. Parisko Euskal Etxean erakutsi zituen Euskal Herriko irudiak, gero Baionan eta Hego Euskal Herrian ere egin ziren proiektzioak. Egindako lanarengatik merezitako omenaldia eman zioten getxoztarrek 2010ean; Getxoko Udalak Aixerrota saria eman zion zinemagileari. Eta 2011n, Euskadiko Filmategiak zaharberritu egin zituen bere lanak. 89 urte zituela zendu zen zinemagilearen lanak sarean daude ikusgai orain, *Avignon* izan ezik. ◀

Info+: www.filmotecavasca.com

Oroitzapenak idatziz jartzeko aukera, Leioan

Leioako Udaleko Kultura Sailak Ni gaztea nintzenean... narrazio-lehiaketaren 16. edizioa abiatu berri du. Gura duen edonork parte har dezake, ondorengo lau kategoriatako batean: 18 urtera artekoa, 19-30 urte bitartekoa, 31-55 urte bitartekoa, eta 56 urtetik gorakoena. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez idatzi bi aurkez ditzake, euskaraz ala gaztelez, eta gehieneko luzera 5 orrikoa izango da. Lanak aurkezteko epea apirilaren 24an amaituko da.

Narrazioak Kultur Leioan aurkeztu beharra dago, norbera bertaratuz edo posta arruntez bidaliz (Kultur Leioa, Jose Ramon Aketxe Plaza, 11, 48940, Bizkaia). Azken modu horretan egingez

gero, zigiluz markatuta egon behar dute, beranduenez apirilaren 24ko datagaz. Ohi den legez, beste kartazal itxi batean joan behar dute egilearen datuek (izena, abizenak, helbidea, adina, telefono zenbakia eta, posible bada, posta elektronikoko helbidea).

Maila bakoitzean sari bi emango dira: kategoria bakoitzeko irabazleak 250 euro, garaikurra eta diploma jasoko ditu; bigarrenak 125 euro, garaikurra eta diploma. Sari-banaketaren ekitaldia ekainaren 12an egingo dute Kultur Leioan, 19:00etan. Oinarriak udaletxean, Kultur Leioan eta udal bulegoetan eskura daitezke. ◀

Info+: www.kulturleioa.com

Pazko Astean umeei begirako zinema egongo da Areetan


Ohi den legez, eskola-umeak oporretan daudela aprobetxatuta, Haur Zinema Jardunaldiak egingo ditu Pazko Astean Getxoko Kultur Etxeak. Emanaldi denak Areetako Andres Isasi musika eskolan izango dira, arrastiko 17:00etan; eta sarrerak 2,10 euroan egongo dira salgai pelikula bakoitzeko. Horrenbestez, apirilaren 7tik 10era, *Horror bus*, *Katu bat Parisen*, *La Bella y la Bestia* eta *Cazadores de dragones* filmak egongo dira ikusgai. Begi bista-koa denez, ikus-entzunezko bakarra izango da euskaraz: hilaren 8ko *Katu bat Parisen* pelikula. Getxoko Haur Zinema Jardunaldiak 32 urte beteko dituzte aurtengo ekitaldian. ◀

Lanak aurkezteko epea
Apirilaren 24ra arte.

Lau kategoria
18 urtera arte; 19 urtetik 30 urtera; 31 urtetik 55 urtera; eta 56 urtetik gora.

Sariak
Kategoria bakoitzeko irabazlearentzat 250 euro; bigarrenarentzat 125 euro.

Sari-banaketa
Ekainaren 12an, 19:00etan, Kultur Leioan.



SOPELA

Irudimena bitarteko, munduari bira emanaz

Kartotibiraka. Munduari itzulia 80 kaxatan antzezlan 198ko martxoan estreinatu zuen Zornotza aretoan Markelñe taldeak. Zenbatezinak dira ordutik gaur arte eskainitako saioak eta obra horrek jasotako aipamenak. Oraingo honetan Sopolako Kurtzio kultur etxean oholtzaratuko dute antzezlan hori apirilaren 12an, domekagaz. Emanaldia 18:00etan izango da

eta sarrerak 3 euroan edukiko dituzte
haurrek eta 5 euroan helduek.

Marlekiñek antzezlan bisual eta keinuak lan egin zuen *Kartoi-biraka* sortzeko. Ikuskizun horren abiapuntua eta helburua hori izan zen. Haurrentzat eta senideentzat interesgarria izango den testu bako ikuskizuna sortzea. «Julio Vernerren nobelan oinarrituz, bidaiaren aben-


turaren eta jokoaren izpiritua lortzen dugun», diote antzerki-taldeko kideek. Obraren abiapuntua kaxen biltegi bat (edozein mezularitza agentzia) da, bertan hiru langilek kaxak ordenatzen eta kamioira errotan lan egiten dute. Baina dibertigarriena desordenatzea eta jolastea da, kaxa barue-tan begiratuta, mugitu baino, bidaia-ak amestea, biltegitik atera barik.



BERANGO

Dinosauroak pantailatik
bizi-bizi ateratzen
ikusiko ditugu

Apirilaren 12an, domeka, *Dinosauroen artean* euskarazko animazio-pelikulagaz gozatzeko aukera edukiko dute Berrango Antzokira hurbiltzen diren ume zein nagusiek. Saioa 18:00etan izango da; sarrera doan. Zinemako historian lehenengoz, ikusleek benetan ikusi eta sentituko dute nola zen dena dinosauroek Lurra menderatzen zuten garaian. *Dinosauroen artean* murgiltze-esperientzia erabatekoa da. 3Daren teknikaren laguntzaz, ikuslea prehistoriako mundu zirraragariaren erdigunean jarriko da. Bertan dinosauro galtzaile bat azke-nean garaile aterako da. ▶



GETXO

Domekako haur
zinean piratak
izango dira nagusi

Domekako Haur Zinea zikloaren baitan, euskarazko pelikula bat ikusteko aukera edukiko dute haurrek, Getxoko Kultur Etxearen eskutik. Hilaren 12an Karra-
marroen uhartea animazio filma ikusgai egongo da Aretako An-
dres Isasi musika eskolan, arrat-
tiko 5:00etatik aurrera. Sarrerei
dagokionez, 2,10 euroan egongo
dira, musika eskolako leihatilan.
Adin denentzako filma da.

2015/04/04

Noe filma

Berango Antzokia | Berango
12 urteik gorakoentzat.
Gaztekeraz izango da.
Sarrera doan.
19:00

2015/04/04

In perpetuum mobile

2015/04/11

Txorimalo gaztetxearen urteurren-iaia

Txorimalo gaztetxea | Getxo

Pintxo-txapelketa, bertso-bazkaria, eta kontzertuak egongo dira. Bazkaria: 10 euro. Kontzertuak: 5 euro. Eguneko bonua: 12 euro. 11:00etatik aurrera.

2015/04/11

Eskulanak egiteko aukera Astrabuduan

Apirilaren 7tik 1oera, 6 eta 12 urte ar- teko haurrei begirako tailerrak egongo dira Astrabuduko liburutegian; besteak beste: txotxongiloak, imanak, postalak, eta abar egiteko aukera edukiko dute neska-mutilek, 11:00etatik 13:00etara. ◀

Politika entseguak sarituko ditu EHUK

Mikro-polis, politikari buruzko entse- guen lehiaketa antolatu du EHUK. Mar- txoaren 27ra arte bertoko ikasleek parte hartu ahal izango dute sariketan. Lan onena 1.000 eurogaz sarituko dute. ◀

Info+: www.mikro-polis.eu

Jaurlaritzaren Argazki-lehiaketa

Non ikusten duzu Europa Euskadin? dei- turiko gazteentzako argazki-lehiaketa antolatu du Eusko Jaurlaritzak. Parte hartzeko epea apirilaren 27ra arte egon- go da zabalik. ◀

Info+: www.facebook.com/feder.ejgv.euskadi.eus



Loreak filma ikusgai Areetan

«Ane, 40 bat urteko emakumea, ez dago bere bizitzako garairik onenean. Etxean loreak jasotzen hasiko da, aste- ro; hasieran pentsatzen du bere senarra dela, baina ez da hura...». Doluaren prozesua jorratzen du Jon Garaño eta Jose Mari Goenagaren lanak bat-bateko heriotza bat medio.

Noiz: Apirilak 10, barikua. 21:00.
Non: Andres Isasi musika eskola.
Sairrera: 2,90 euro.

Euskaraz, azpituiludun jatorrizko bertsioan. Berbaldia ere egongo da.

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

antzeziana

Andres Isasi musika eskola | Getxo
Alanbike taldearen eskutik. Gazteleraz izango da. Sairrera: 3 euro. 19:00

2015/04/04

Incognita eta Hozten rock taldeen kontzertua

Xurrut pizzeria | Gortiz
Sairrera: 2 euro. 22:00

2015/04/05

Lifi, una gallina tocada del ala animazio zinea umeentzat

Berango Antzokia | Berango
Gazteleraz izango da. Sairrera doan. 18:00

2015/04/08 - 2015/04/30

Desde una nueva luz pintura erakusketa

Algortako Torrene aretoa | Getxo
Agustín Bilbaoren eskutik. Sairrera doan.

Asteazken etik barikura 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara. Eta domeketan goizez.

2015/04/09

Ellas genero ikuspegiko filmea

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Gazteleraz izango da. Sairrera doan. 18:00

2015/04/09

Beautiful Brains rock taldea

El Comercio kafetegia | Getxo
Getxo Zuzenean jardunaldien barruan. Sairrera doan. 20:00

2015/04/10

Kontularien kluba

Algortako kultur etxea | Getxo
Ipuin-kontalaria izan edo entzun gura duten nagusiez osatutako saioa. Oraingo honetan «...eta Elizarekin topo egin dugul» izango da gaia. Gazteleraz izango da. Sairrera doan, aretoa bete arte. 19:00

El gran hotel Budapest filma

Berango Antzokia | Berango
12 urtetik gorakoentzat. Sairrera doan. 19:00

2015/04/11

Bronca poetica poesia eta antzerki performancea

Josu Murueta kultur etxea | Erandio
Galatea taldea. Sairrera: 2 euro. 20:00

2015/04/11

Erdibana antzeziana

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Txalo Produkzioak taldea. Euskaraz izango da. Sairrera: 6 euro. 20:00

2015/04/12

Motorzaleen ibilaldia

Karl Marx, 17 (Astrabudua) | Erandio
Goiuri ur-jauzira (Orduña) joango dira Astrabu Motor Klubeko lagunak. 09:00

2015/04/12

Dantzaldia orkestrarekin

Altzagako azoka zaharra | Erandio
Jamaica taldeak girotuko du. Sairrera doan. 17:00

2015/04/16

Ipuinaren ordua

Gobelako liburutegia | Getxo
Habia una vez... y mentira no es saioa, Carlos Saezen ekimenez. 3-6 urte arteko haurrentzat. Gazteleraz. Sairrera doan, aretoa bete arte. 18:00

2015/04/16

Literatur solasaldia

Algortako Kasinoa | Getxo
La fiesta de la insignificancia (Milan Kundera) liburuaren gainean. Gazteleraz izango da. Sairrera doan, aretoa bete arte. 19:45

2015/04/16

Gintonic rock taldea

Silver's Tavern | Getxo
Getxo Zuzenean jardunaldien barruan. Sairrera doan. 20:00

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Sarritik Borobiara

**PAUL
BILBAO SARRIA**
Kontseiluko Idazkari Nagusia

Hurrengo erronka gure herria euskahalduntzea

Euskararen aldeko herri gogoaren erakusleho garrantzitsuena amaitu berri da. Ehunka mila herritar kalera atera da gure hizkuntza-aren berreskurapenaren alde oihukatuz. Elementu sinboliko anitz hartzen ditu KORRIKA fenomenoak. Egur zati bat gure komunitateari jarri zaizkion muga ofizial eta administratibo guztiak gainditzeko gai da. 2.501 kilometro egin ditu egur zati horrek, eta kilometro bakoitzean norbait izan du zain. Halere, KORRIKAK norbanakoarena ez ezik, kolektiboarena ere baden irudia islatzen du. Izan ere, gure hizkuntza berreskuratzeko gutako bakoitza da beharrezko, baina kolektiboki egin behar dugu aurrera. Gainera, KORRIKAK badu bere izaerari estuki lotzen zaion beste ezaugarria: Lasterka egiten ditugu kilometro guztiak, izan ere, presa dugu gure hizkuntza normalizatzeko.

EUSKAHALDUNDU beharra aldarrikatu dugu. Enpoderamendua, boteretzea... horietatik izan dira KORRIKAK zabaldu duen mezuan oinarriak. Izan ere, hizkuntza boterea da, eta hizkuntza boterea denez, hizkuntza-gatazka daudela ondorioztatu behar dugu. Hartara, hizkuntza-gatazketan euskarak aurrera egitea nahi badugu, geure botere-guneak baliatu behar ditugu euskarari lehentasuna emanez. Lan-tokian, institutuan, koadrilan, elkartean... euskaldunok boterea erabili behar dugu gune horietan guztietan euskara normaltasunez erabil dadin, gure herrian geure hizkuntzan bizi gaitezen. Askok gara euskaldunak, hortaz, hurrengo urratsa emateko garaia iritsi zaigu. Euskahalduntzeko garaia heldu da, euskaraz bizi nahi dugula esan eta egikaritu behar dugu, eta zalantzarik ez izan, lagunok, euskaldun guztiak euskahalduntzen garenean jauzia emango dugu. ◀



Urteurrena apirilaren 8tik 11ra ospatuko dute.

Txorimalok 9 urte beteko ditu datorren asteburuan

Apirilaren 8an emango diote hasiera ospakizunari, eta zapatara bitartean hamaika ekimenaz gozatzeko aukera izango da. Zapatuan egun handia ospatuko dute.

Apirilaren zortziagaz Algortako Txorimalo gaztetxea bere urteurrenaren ospakizunetan murgilduko da. Bederatzi urte igaro dira 2006ko udaberri hasieran eraikin hori okupatu zutenetik, eta ordutik hamaika pertsona eta proiektu hartu ditu guneak. Algortako Gazte Asanbladako kideek ilusioz beterik hartu dute urtemuga, eta bede-

ratzi urteei behar bezalako ondo etorrria emateko, ekimen ugari antolatu dituzte lau egunetarako. Apirilaren 8an, eguaztenagaz, emango diote hasiera egitarauari, 17:30ean hasierako ekitaldiagaz eta lunchagaz. Ostean, hainbat tailer eta belaunaldi arteko afaria egingo dituzte. Hurrengo egunean, aste amaierarako azpiegitura muntatzeko auzolanak hasiko dituzte

goizean, eta bitartean, tailerrak, pala txapelketa, metropolinpiadak eta film laburrakaz gozatu ahal izango da Txiki Otaegi enparantzan (San Nikolas plaza). Barikuan, 11:00etan umeei zuzendutako tailerrak egingo dituzte leku berean, eta arrastian, antzerkia eta kontzertua egongo dira gaztetxean. Zapatuan, hilaren 11n, izango da egun handia! Aurten tortilla txapelketa alde batera utzi eta pintxo onena bilatuko dute; ondoren, bertso-bazkaria egingo da eta, amaitzeko, kontzertuak izango dira, Hartzak Blues Band, Meraki eta Skatu taldeakaz. ◀

Ekoguneko ikastaroetan izen-ematea zabalik

Beste urte batez, hainbat ikastaro antolatu ditu Uribe Kostako Mankomunitateko Iraunkortasun Sailak, 2015eko lehenengo seihilekorako.

Aurten, honako ikastaroak egongo dira: ongarri organikoak eta mikroorganismo eraginkorrak; hasiberrientzako jostintza; terrazako ortua; etxeko konponketak (oinarrikoak); bizikleta konponketa; itsasertzeko basa-landareak identifikatzeko irteera; bizikletaz ibiltzen ikasi; eta ortu organikoak. Horiek guztiak gazteleraz egingo dituzte, bizikletak konpontzeko eta itsasertzeko basa-landareak identifikatzeko izan ezik, euskaraz egingo baitituzte. Horietan parte hartu gura dutenek

izena eman beharko dute hilaren 7a baino lehenago. Ikastaroak doakoak izango dira, eta Mankomunitatea osatzen duten zazpi udalerrietako batean erroldatuta daudenei zuzenduta daude: Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urduliz.

Iraunkortasun Sailak 2006an konposgintza-kanpaina hasi zuen, eta 2007an lehenengo inausketa ikastaroa eskaini zuen. Geroztik, auzotarrek aurkeztutako eskariei eta iradokizunei erantzuteko asmoz, gaur egun 14tik gora ikastaro eskaintzen dituzte, denak ortuagaz, ekologiagaz eta kontsumo arduratsugaz lotutakoak. ◀

Izen-ematea: cursos@uribekosta.org

Ipuin-kontalarien Astea, hilaren 8tik 10era, Kurtzion

Ipuin kontalarietako Sopelako Kurtzio kultur etxea hartuko dute hiru egunez: apirilaren 8an, 9an eta 10ean etxeko txikiak ipuinakaz gozatu ahal izango dute bertan, 18:00etatik aurrera. Sarrera doan da, baina gonbidapenak jaso beharra dago, 3 egun lehenago egongo da horretarako aukera. Lehenengo egunean, hilaren 8an, Bego Alabazanak *Sagu txiki, sagu maite* ipuina irakurriko du. Hurrengo egunean, Joxe Mari Carrerek *Izarren bitakora*; eta hilaren 10ean, Pantzarrek, Juan Kruz Igerabideren ipuin batean oinarrituta, sehaska kantak eta aho-korapiloak azalduko ditu. ◀

Info+: www.sopela.eus

Egitaraua

Apirilak 8, eguaztena

17:30-18:30 Hasierako ekitaldia eta tailerrak.
21:30 belaunaldi arteko afaria, 4 euro.

Apirilak 9, eguna

Txiki Otaegi (San Nikolas) enparantzan

11:00 Tailerrak.
16:00 Pala txapelketa eta metropolinpiadak.
22:00 Film laburrak.

Apirilak 10, barikua

11:00 Umeentzako tailerrak (Txiki Otaegin).

19:00 Antzerkia Kalerki taldeagaz.
21:00 Kontzertua Ou Mama! taldeagaz.

Apirilak 11, zapatua

11:00 Pintxo txapelketa.
14:30 Bertso-bazkaria Jone Uria, Etxahun Lekue eta Igor Elortza bertsolariakaz; txartelak 10 euroan.

19:00 Kontzertuak: Hartzak Blues Band, Meraki eta Skatu taldeak. Ondoren Prin-tzi anaiak; 5 euro, eguneko bonoa 12 euro.

«Uribe Kosta erdal gunea bada ere, bertsolaritzak badauka harrobia»

Paule Loizaga Legarra

17 urteko sopeloztarra da gaur egun ALBEko harribitxietako bat.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Algortako Bertsolari Eskolako (ALBE) kideek orain gutxi ekarri dute Bertsolari Gazteen BBK saria Uribe Kostara. Martxoaren 26ko finalean Lea-Artibakoei irabazi zieten bertsolarietako bat dugu Paule Loizaga sopeloztarra.

Indartsu hasi zenuten BBK sariketa, Enkarterriri 45 puntuko aldea aterata.

Hala da. Puntuazioari dagokionez, Zallako Mimetza ikastetxekoa izan zen aurkarietako alderik handiena atera genien saioa. Gero, martxoaren 24an, Sopelako finalaurrekoan, nik behintzat, urduritasun handiagoa nabaritu nuen. Ander Deuna ikastolan, etxean, «jokatzen» nenbilen eta horrek presio handia eragin zidan. Bilboko Kafe Antzokiko finalean, ostera, denok ibili ginen lasaia. Saio nagusira helduta ez geneukan galtzeko ezer. Irabaziz gero primeran; baina, galduz gero ere pozik egongo ginateke finalera heltzeagatik.

Ander Deunan Busturialdeari irabazi zenioten. Zelan joan zen saioa?

Oso parekatuta ibili ginen bi taldeok. Giro ederrean joan zen eta, nire ustez, saio polita izan zen ikastolako entzuleentzat eta ikusleentzat.

Poztasun handiagoa emango zizun finalerako txartela etxean lortu izanak.

Ba, bai. Gainera, ikaskide eta irakasle denak eduki genituen egun guztian zorionak ematen. Finalera begira bultzada handia izan zen hori.



Loizagagaz batera, sariketan, Uribe Kostako ordezkariak hauek izan ziren: Peio Arondo, Inazio Vidal, Maider Barañano, Aritz Landeta eta Unai Mendiburu.

Ostera, Lea-Artibai ez zen aurkari erraza izan finalean, ezta?

Ni oso lasai igo nintzen agertokira, baina saioak aurrera egin ahala, zalantza handia sortu zitzaidan. Taldekideetako baten bati ere komentatu nion ez nuela uste irabaziko genuenik. Baina, gero, puntuei begiratuta, saioa oso orekatua izan zela ikusi genuen. Uribe Kostako txikiek bederatzi puntu inguruko aldea ateratu zuten Lea-Artibakoei. Nagusiagok, ostera, bost puntu gutxiago edo. Ezusteko ederra hartu nuen BBK saria gurea zela ikusitean!

Ikusleen aldetik berotasuna nabaritu zenuten Kafe Antzokian?

Zelanbait esateko, «aurkariakaz» edo, harreman oso ona daukagu. Aurretik ezagutzen dugu elkar. Eta, azken finean, bertsolaritzaren munduan oso harreman ona izan ohi dugu denon ar-

tean. Ikusleei dagokionez, orokorrean oso gazteak ziren denak. Unibertsitateko ikasle nahikotxo etorri zen. Gero, badakizu, parranda botako zutelako gehienek... Ikusleen aldetik berotasun

“*Aurten ALBEren 35. urteurrena izanda, opari ezin hobea dugu BBK saria*”

handia nabaritu genuen agertoki gainean geundenok. Dena ematen ibili ziren. Eta ALBEkoak zer esanik ez! Betiko legez gu animatzen ibili ziren.

Zelan ospatu zenuten garaipena?

Saioaren ostean luncha eduki genuen Lea-Artibakoakaz batera eta gure taldekideetako batzuk parranda egin

zuten egunean bertan; denok ez! Batzuek ez daukagu oraindino parrandarako adina eta hurrengo egunean eskolara joan beharra geneukan. Dena dela, Aste Santuan edo, parrillada handia egingo dugu bertso-eskolako denok, garaipena ospatzeko.

Garaikurra zeini eskainiko zenioke?

Eskaini, eskaini... inori ere ez. Uribe Kostaren eta ALBEren izenean kantatu dugu; aurten bertso eskolaren 35. urteurrena izanda, gainera, denontzako opari ezin hobea da BBK saria.

Uribe Kosta da BBK sari gehien daukan taldea...

Ohorea da horri eutsi izana. Eta horrek erakusten du harrobia badaukagula, eta erdal gunea batean bizi izanda ere, bertsolari eta bertsozale nahikoa badagoela. ◀

HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZALE izanda:

- Pertsona Juridikoak: 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- Norbanakoak: 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- Pertsona Juridikoak: 200 € + Urteko kuota: 33 €
- Norbanakoak: 50 € + Urteko kuota: 33 €

2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

- ☐ Bazkide Erabiltzale
☐ Bazkide Laguntzaile

Hiruka laguna

☐ Urtean 35€ ☐ Urtean _____ €

Izena		NA	
Abizenak			
Helbidea			
Posta kodea		Herria	
Herrialdea		Telefonia	
E-posta			

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona:
Martirioena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

«Golf erreferentea izatea gustatuko litzaidake, Txema Olazabal izan zen moduan»

Jon Rahm (Barrika, 1994) golf-jokalari legez izaten ari den abantzua lkusgarria da. Ander Deuna Ikastolan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaituta, Madrilera joan zen, kirolarien artean izen handia duen Ortega y Gasset institutuan batxilergoa estudiatzeko, golf entrenamendu profesionala egiten zuen bitartean. Barrikatik Madrilera eta Madriletik Arizonara.



ANDER EGILUZ BERAMENDI
EUSKALKULTURA.COM WEBGUNETIK HARTUA

Drive ederra jo zuen Rahmek Goi Mailako ikasketekin hasteko, Ameriketako Estatu Batuetako mendebalderantz abiatu baitzen. Komunikazio ikasketak egiteaz gain, kirolari bezala hazi ahal izateko eman zuen izena Arizona State University-n, orain urte bi ia. Ordutik, Munduko Amateur Txapelketa irabazi du eta, orain aste batzuk, bosgarren geratu zen PGA-ko (Golf Jokalari Profesionalen Elkarte) txapelketa batean. Mundu mailan, ez du amateur batek horrelakorik lortu 2008. urtetik.

Estatu Batuetako unibertsitateetan oso ohikoa da kirolariei bekak ematea. Horregatik erabaki zenuen Arizonara joatea?

Bai, beka eskaini zidatelako etorri nintzen hona. Oso ondo zaintzen dituzte kirolariak AEBetan eta, golfari dagokionez, dudarik ez dago, etorkizuna hemen dago. Askoz ere garatuago dago dena eta askoz aukera gehiago dituzu karrera bat ikasi eta kirolari legez hazteko. Euskadin, horrela, deusek ez luke karrera bukatuko.

Izatez, nahiz eta Tempe-n ikasten duzun, denbora gehiago ematen duzu, ia, txapelketaz txapelketa, unibertsitatean bertan baino. Zenbat torneotan lehiatzen zara urtean?

Hamabost bat txapelketetan hartzen dugu parte urtean, baina lehen seihilekoan lau baino ez ditugu eta, bigarren, gainontzeko guztiak. Gelditu barik

ibiltzen gara udaberri partean, zoramena da eta eskola asko galtzen ditugu.

Eta irakasleek zer diote?

Lagundu egiten digute, unibertsitateko kontu bat delako. Entrenatzaileek ere ulertzen dute zenbaitean entrenatzera joan ezin izatea, ezin baita ahaztu, hemen, gutxieneko maila akademikoa ez baduzu seihileko osoa geratzen zarela jokatu barik. Eta lau urte baino ez dituzu. Horrez gainera, beka bat inber-

“ Unibertsitateen Liga Nazionalea, British Amateur-a eta U.S. Amateur-a dauzkat buruan; hirurak irabazi gura nituzke ”

titu dute gudan, eta presio hori ere baduzu. Jokalari eta ikasle bezala dituzu zereginak.

Komunikazioa ikasten ari zara, zergatik aukeratu zenuen karrera hori?

Oso gauza interesgarriak ikasten ditugulako: soziologia, komunikazioaren teoria, gatazken konponbidea, jendaurrean berba egitea... Gainera, enpresa askok behar dituzte komunikatzeko gaitasuna duten langileak.

Baina amesten duzun ibilbide profesionala golfaren ildotik doa. Gerta liteke?

Bai, eta neure buruari erakutsi nion hori, orain aste batzuk, Waste Management Phoenix Open-ean bosgarren geratu nintzen. 2008tik ez du amateur batek PGA-ko txapelketa batean horrelako markarik lortu. Benetan gauza ezohikoa izan da.

Eta hori gutxi balitz, munduko txapelduna ere bazara.

Bai, Espainiaren ordezkari legez jokatu nuen. 74 herrialdek eta herrialde bakoitzeko hiru jokalari onenek hartu zuten parte. Taldeka, hirugarren lotu ginen eta, bakarka, urrezko domina lortu nuen.

Kirolari bezala, abiadura bizian zabilta hazten. Atzera begiratzen duzu inoiz, hasierako egunak oroitzuz?

Azken boladan bai, nirekin jokatzen zuten askok baino maila dezente altuagoa izaten ari naizelako eta flipatu egiten dudalako askotan. Baina, orduan, ikasten jarraitu behar dudala konturatzen naiz, nota barik golfik ere ez dagoelako hemen. Hori da Estatu Batuetako unibertsitateen alde ona. Badugu Europan zer ikasi. Ez zait esatea gustatzen, baina badaude kirolari txoriburu asko...

Golfa horren kirol hedatua ez izateak horretan eragina izan dezakeela uste duzu?

Estatu Batuetan, oso kirolari gutxi ailegatzen dira profesionalek unibertsitateetik igaro gabe. Kobe Bryant eta beste gutxi batzuk baino ez.



Arizonan, golfean eta ikasten

Drive ederra jo zuen Rahmek Goi Mailako ikasketakaz hasteko, Ameriketako Estatu Batuetako mendebalderantz abiatu baitzen. Komunikazio ikasketak egiteaz gainera, kirolari legez hazi ahal izateko eman zuen izena Arizona State University-n, orain urte bi ia.

Ordutik, Munduko Amateur Txapelketa irabazi du eta, orain aste batzuk, bosgarren geratu zen PGA-ko (Golf Jokalari Profesionalen Elkarte) txapelketa batean. Mundu mailan, ez du amateur batek horrelakorik lortu 2008. urtetik.

Etorkizunera begira, epe labur-ertainean, golf arloari dagokionez, hiru txapelketa edo erronka dauzka buruan barrikoztarrak, hurrengoak: Unibertsitateen Liga Nazionala, British Amateur-a eta U.S. Amateur-a.

Kirol elitistaren etiketa du golfak oraindino; haute-maten duzu hori?

Badaude oraindik golfa pijoen kiroltzat dutenak, eta hala zen XX. mende hasieran, aberatsentzat baino ez. Baina orain edonork joka dezake. Derion dagoen Eduardo Cellesen akademian, 20 eurogatik badauka-zu eskola bat. Eta golf zelai publikoak ere baditugu, ez da dena pribatua. Horrez gain, askoz ere hedatuagoak dauden zenbait kirolestan dirutza utzi behar duzu: surflarien trajeak, eskiatzeko behar duzuna, bai eta futboleko botak berak... Golfak ez da jendeak uste duen bezain garestia, eta askok irizten diotena baino entretenigarriagoa da. Egia da, baina, esfortzu handia eskatzen duela. Eta pena da orain, geurean, (Txema) Olazabal bezalako pertsona bat ez izatea, jendea golfera erakarriko duena.

Ematen du zu izan zaitezkeela Euskadiko hurrengo golf erreferentea.

Asko gustatuko litzaidake eta, gaur egunean, sare sozialei esker, askoz errazagoa da jendeak neure berri izatea. Masters bat irabazten badut, hamar aldiz arinago jakingo du jendeak.

Ez da erraza norbere herrikideen arreta lortzea, bereziki, jendetza mugitzen duten kirolestatik kanpo...

Familiak eta lagunak badakite baina, oro har, uste dut jendeak ez duela lortzen ari naizenaren berri. Azken PGA-ren ostean hainbat irratik eta telebistakatek esan dute zerbait eta Barrikan ere badakite as-

kok. Ilusioa ematen dit horrek. Gainera, uste dut jaie-tako pregoilaria ni izatea nahi dutela!

Esperientzia erabat desberdina izango da golf munduan, ezta?

Bai, parte hartzen dudana torneo guztietan esaten didate zerbait. Gainera, unibertsitatearen koloreekin jokatzeko dudanez, hurbil sentitzen nau jendeak. Athletic-ekin gertatzen dena gertatzen da Ameriketako unibertsitateekin, sentimendu bat da.

“ Falta ditut tabernaz taberna ibili, bazkalosteko mus partidak, kalimotxoa edan ahal izatea, San Mamesera joatea... ”

Epe labur-ertainean, zer gustatuko litzazuke lortzea?

Hiru txapelketa ditut buruan: Unibertsitateen Liga Nazionala, British Amateur-a eta U.S. Amateur-a. Amateurrentzat eskura dauden hiru handienak dira. Orain urte bi, unibertsitatean hasiberria nintzela, Nazionalean lehena izatea lortu nuen, horregatik uste dut hori izango dudala lortzen errazena. Beste biak irabazteko aukera badut ere, baina urte bitan latza izango da.

Lan handia exijituko dizu horrek, inondik ere. Familia bisitatzeko astirik baduzu?

Bai, askotan noa etxera. Gabonetan hilabete osoa, ia-ia, eta udan, azken lehiaketa bukatzen denetik eskolak abuztu aldean hasten ditudan arte.

Eta etxean zaudenean, zerk ematen dizu ilusio handien?

Familia eta lagunak ikusteaz gain, bazkariak. Topikoa bada ere, egia da. Aitite eta amamarekin jaten dut lehen egunean, beti. Arrautza-irinetan pasatutako legatza da gustukoen dudana.

Baduzu Uribe Kostan txoko kutunenik?

Hamasei urte nituela Madrilera joan nintzen, beraz zaila da leku bat hautatzea. Baina, txikitana, Sopelatik ibiltzen ginen asko. Orain familiarekin joan ahal naizen edozein toki hautatuko nuke.

Eta, bukatzeko, Ameriketara egin ezin duzun planen bat?

Hamaika gauza! Tabernaz taberna ibiltzea, bazkalosteko mus partidak, kalimotxoa edan ahal izatea... Lelokeria ematen badu ere, bizitza soziala oso desberdina da Ameriketara. Eta jakina, San Mamesera joatea botatzen dut faltan. Bazkidea naiz oraindik, ederra da estadio berria baina Abertzale Sur-en nuen lekua lehen, atearen atzean. Orain kornerrean gaude, ez da gauza bera, baina merkeagoa da, kar-kar. ◀



Getxo Kirolak, abonatuak berreskuratzen

Krisian galdutako bazkide-kopurua berdintzen dabil Getxo Kirolak erakundea, apurka. 2014ko memoriak dioenez, 2012ko kopurua hurbil dauka.

Getxo Kirolak udal erakundeak 27.328 abonatu izan zituen iazko abenduaren 31n, 2013an baino 500 bat bazkide gehiago. Halere, oraindino, bere kopururik altuenaren azpitik dabil. Izan ere, 2012an 27.369 pertsona inskribatu ziren kirol instituzioan.

Erakunde horren urteko txostenaren datu orokorren arabera, udalerriak jardueren eta parte-hartzearen gaineko adierazle altuenak izan ditu, kirol amateur, eskola-kirol eta kirol federatuko hainbat jardueratan zein instalazioen erabileran.

Kirol Hiririk Onena

2014 urte horretan, Europako Kirol Hiririk Onenaren izendapena jaso zuen Getxok, eta Udalak hainbat kirol eskaintza berezi eskaini zizkien bertoko herritarrei, bisitariei eta, bereziki, Getxo Kirolak abonatuei.

Iaz, 9.500 pertsona inguru matrikulatu ziren Fadurako eta Gobelako kiroldegietan ematen diren ikastaroetan eta Lehen Hezkuntzako 2.000 bat ikaslek parte hartu zuten eskola-kiroleko jardueretan. Kirol federatua-

2014an, Europako Kirol Hiririk Onenaren izendapena jaso zuen Getxoko udalerriak

ri dagokionez, 64.000 lagunek baino gehiagok hartu zuen parte tokiko klubek antolatutako 2.600 bat txapelketatan. Azkenik, Getxo Europako Kirol Hiri Onenaren izendapenagaz lotuta, Udalak bultzatutako ekintzatan, 40.000 lagun baino gehiagok parte



2012an izan zuen abonatu gehien Getxo Kirolak. © GETXOKO UDALA

hartu zuen, Getxo Kirolak erakundeak 132 elkartegaz batera antolatutako makina bat jardueratan.

Padela nagusi

Iazko txostenak jasotzen duenez, erabiltzaileek kirol mota asko praktikatzeke baliatu dituzte udal kirol-instalazioak. Halere, okupazio-maila altua izan dituzten kirolen zenbait kopuru aipagarriak dira: padeleko pistak 15.336 ordutan erabili ziren; horren atzean gelditu ziren tenis pistak (7.556 ordu); eta, azkenik, 3.357 orduz okupatutako pilotalekuak.

Alvaro Gonzalez Getxoko Kirol Arloko zinegotziaren ustez, urteko memorian jasotzen diren adierazleek «laguntzen digute Getxo Kirolak erakundeak, tokiko elkartekaz eta klubakaz batera, herrian kirola dinamizatzeke eta zabaltzeko burutzen duen lana ulertzen eta baloratzen. Aurten

gora arte, ez ditugu inoiz izan parte-hartzearen gaineko hain kopuru altuak; beraz, oso positiboa da Europako sariak ekarri dutena. Gure helburuak parte-hartzeko maila horri eusten jarraitzea izan behar du».

Memoria ekonomikoa

2014. urtean, Getxo Kirolak 8 bat milioi euroko aurrekontua izan zuen, eta horretatik 3,6 milioi inguru tasen eta bestelako sarreraren bidez lortu zituen. Hortaz, kirol erakundearen autofinantzaketa-maila %53koa da.

Udalerriko klubei eta kirolariei emandako diru-laguntzei dagokienez, Getxo Kirolak 382.000 euro banatu zituen. 223.000 euro udal-eremuko kirol-eskoletarako izan ziren, futbol, eskubalo, errugbi, pilota, hipika eta arraunketa modalitateetarako. Gainera, 166.000 euro gorde ziren kirol emaldiak edo saioak antolatzeko. ◀



«Hankak apurtzeko moduko lasterketa» da Akarlandakoa. © UNION CICLISTA ERANDIO

Mountain bike saria bueltan dator Erandiora

Iaz egin barik gelditu ostean, aurreten jokatu da, azkenean, Erandio-ko Udalaren Mountain Bike Sari Nagusiaren hamargarren edizioa, Bizkaiko txapelketa ere badena. Erandio-ko Union Ciclista taldeak antolatuta, proba apirilaren 12an egingo da, domeka, goizeko 11:00etatik aurrera eta, ohi legez, lehia gunea Akarlanda parkea izango da, Unbe mendatearen magalean. Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren iritziz, «hankak apurtzeko» moduko lasterketa da Akarlandakoa, «maldan gora eta behera, atsedena hartzeko tarterik ez baitu ematen». Parte-hartzaileek sei kilometroko zirkuitu

bati aurre egin beharko diote, hainbat bira emanaz. Kadeteen kasuan, buelta bi nahiko izango dira. Gazteek, emakumeek eta Master 40 eta hortik gora-koek, ordea, hirutan bete beharko dute zirkuitua. Azkenik, Master 30ekoek, 23tik azpikoek eta Elitekoek 30 kilometro egin beharko dituzte, bost bira. Izen-ematea aurretik egin beharra dago, Federazioaren webgunean.

Udaleko saria eta Bizkaiko txapelketa izateaz gain, lasterketa Euskadiko MTB Open sariaren 2. proba ere bada; horren beste proba bat, bosgarrena, Getxon egingo da, ekainaren 21ean. ◀

Errotabarri, kimuen gozagarria



Iaz Gazte Berriak talde nafarrak irabazi zuen Jesus Irusta torneo. © PLENTZIAKO KIROI ELKARTEA

Plentziako Errotabarri udal futbol zelaia konpontzeko lanak bideratuta daudela ematen duenean, zapatu eta domeka hauetan, apirilak 4 eta 5, umez beteko da Plentziako kirol elkarteak erabiltzen duen berdegunea.

Kimuen hamasei taldek parte hartuko dute Jesus Irusta futbol 7 torneoaren VI. edizioan: etxeko Plentzia A eta B; eskualdeko Romo, Gorniz eta Lagun Artea; Bizkaiko Sestao River, Loiola Indautxu eta Lauro ikastola; Gasteizko Aurrera; Antsoaingo Gazte Berriak; eta Mirandako Casco Viejo, Logroñoko Comillas eta Berceo, Camargoko Peña Paco Liaño eta Salouko Costa Daurada A eta B. Torneoa lau taldeko ligax-

ketan jokatu da, buelta bakarrean, 30 minutuko partidatan. Kanporaketak zapatuan izango dira, goizeko 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era. Final laurdenetara talde bakoitzeko zazpikote bina sailkatuko da. Partida horiek domekan egingo dituzte, goizeko 10:00etatik aurrera.

Finala, ostera, domekako 13:30ean hasiko da. Azkenik, 14:00etarako espero da kopa ematea irabazleari Gorka Zuazo Plentziako kirol elkartearen jarduneko presidenteak. Pasa den urtean Gazte Berriak talde nafarrak irabazi zuen. Zuazok otsailean eman zuen dimisioa, Errotabarri zelaia dela-eta, baina torneo amaitu arte atzeratu zuen. ◀

Arkote babestuko du Helvetia Segurosek

Beste urte batez, Helvetia Seguros enpresak diruz lagunduko du Arkote arraun taldea. Javier Soroazabal Arkoteko presidentek eta Javier Garcia aseguru enpresaren Marketing zuzendariak sinatu zuten 2015erako hitzarmena Bilbon, martxoaren erdialdean. Helvetia babesle

bakarra izango da eta bere irudia Arkoteren furgonetetan eta ontzi denean izango da: traineru biak, lau trainerillak eta zortzi batelak.

Arkotek 58 urteko eskarmentua dauka eta aurretik ere Plentziako arraun elkarte bezala jardun zuen. Gaur egun, KAE-2 ligan dabil. ◀



Besteak beste, Bizkaiko Traineruen Txapelketa birritan irabazi du Arkotek. © HELVETIA SEGUROS



Barrikako Abaroa Tennis kirol elkartearen kimuak sailkatu dira Euskadiko Taldekako Tono Paez Tennis Txapelketako finalerako, 2011tik lehenengo aldiz. Javier La Fuente, Daniel Ezkurra, Borja Arguero, Harriet Alonso eta argazkian falta den Arturo Lavo jokalariek lortu dute.

© ABAROA T. K. E.

Getxo Igeriketa Bolue, Bizkaiko txapelduna

Getxo Igeriketa Bolue kirol elkarteak Bizkaiko Kopa irabazi zuen, birritan, pasa diren martxoaren 14an eta 15ean, Santurtzin; getxotarrak emakumeen zein gizonezkoen kategoriatan nagusitu ziren-eta.

Getxoko taldeak 15 garaipen lortu zituen, 19 bigarren postu eta beste 17 alditan igo zen podiumeko hirugarren mailara. Horren ondorioz, sailkapen buruan amaitu zuten bai emakumeek eta baita gizonezkoek ere. Emakumeen kategorian, Getxo Igeriketak 630'5 puntu metatu eta kopa lortu zituen; 115'5 puntu atera zizkion bi-

garren sailkatuari, etxeko Santurtziko taldeari; hirugarren lekuan galdakotarrak lotu ziren, 459 puntugaz.

Gizonezkoen kategorian, ostera, talde getxotarrak 635'5 puntu batu zituen, Bizkaiko Kopa eskuratzeko soberan. Portugaletak 526'5 puntu gehitu zituen. Hirugarren postua, berriro ere, Galdakao Igeriketa taldearentzat izan zen, 440 puntugaz. Azpimarratzekoa da ehun metro tximeleta proban lehen hiru mutilak getxotarrak izan zirela.

Taldearen hurrengo helburuak dira: Espainiako Koparen bigarren maila eta udako denboraldia. ◀

**SARTU GURE
WEB BERRIAN**
www.cianoplan.es
902.103.763

❖❖❖ kartelgintza



❖❖❖ inprimategia



❖❖❖ kopisteria



Oihane Garciarentzat brontzea

Oihane Garcia Gaminde taekwondolariak brontzezko domina eskuratu zuen pasa den martxoaren 21eko eta 22ko Espainiako Txapelketetan, Tarragonan. Kadete kategoriako 41 kilo azpiko mailan lehiatu zen getxoztarra.

Basauriko The Masters taldean dabilen Garcia finalaren atarian geratu zen, Gloria Navarro katalanaren aurka finalerdietan 2-8 galtzean. Ostera, brontzezko domina lortu zuen Alejandra Rodriguez andaluziarrari 5-2 nagusitu zitzaionean. Aurretik, Garciak 8-6 eta 11-3 irabazi zien, hurrenez hurren, Andrea Rabal murtziarrari eta Carolina Garcia errioxarrari.

Aurtengoa da Oihane Garciaren az-

keneko denboraldia kadete mailan eta daborduko emaitza bikainak utzi ditu: urrezkoa Euskadiko Txapelketan eta brontzezkoa Espainiako Txapelketetan.

Kadete mailan ere, baina 37 kilo azpikoan, Oihana Garcia Amilibia Getxoko Adore klubeko partaidea lehiatu zen. Getxoztarrak ez zuen zortea bere alde izan eta lehen kanporaketan galdu egin zuen Ainara Perezen aurrean.

Azkenik, Ilargi Garcia Gamindek 21 urte azpiko mailan parte hartu zuen, baina, erdi lesionatuta egonda, lehen norgehiagokan kanporatu zuten, berriro mina hartuta. Taekwondolari getxoztarrak bere burua osatu beharko du, maiatzean Espainiako Gazte Txapelketetan parte hartuko badu. ◀



Oihane Garcia Gamindek pozarren hartu zuen domina. © THE MASTERS



Itsasadarreko errepidetik igaroko da lasterketa. © EVENTS EUSKAL PRESS

Bilbo-Leioa lasterketa hilaren 12an izango da

Apirilaren 12an, domeka, Bilbo eta Leioa lotzen dituen herri-karreraren laugarren edizioa izango da. Lehen Bilbo-Areeta lasterketa zen horretan, korrikalariak Bilboko udaletxeko zubitik irtengo dira, goizeko 10:30ean, eta, asfaltoaren gainetik 11.900 metro egin eta gero, Leioako Boulevard-era helduko dira, Events Euskal Press enpresa antolatzaileak zehaztu duenez. Parte-hartzaileek ordu bi izango dituzte ibilbidea egiteko. Gainera, indarrak berreskuratzeko, anapostua izango dute Elorrietako bihurgunean, edabeak edo edariak hartzeko; eta helmugan, jakiak eta edabeak aho-

ratu ahal izango dituzte. Segurtasuna bermatzeko, ostera, anbulantzia bi eta erratz-autoa izango dira. Era berean, Bilboko eta Leioako udaltzaingoez zein Ertzaintzak trafikoa zainduko dute.

Izen-ematea telefonoz, posta elektronikoz edo enpresaren webgunean egin daiteke. Apirilaren 9ra arte 12 euro ordaindu beharko du interesatuak eta epe horretatik kanpo, 14 euro. Dortsalak Bilbo Atxukarro doktorearen kaleko 7. atarian batu ahal izango dira. Lasterketaren egunean bertan ere aukera izango da, irteera aurretik. ◀

Info+: eventseuskalpress.es

Info+: events@eventseuskalpress.es / 944 058 866

Erandio 3. mailatik jaisteko arriskuan dago

Ategorrin erremediorik ipini ezean, baliteke aurtengo Erandioko kirol elkarteak bere 100. urtemugaren ospakizunei amaiera kaxkarrare ematea. Hogei urteren ostean, Espainiako Ligaren Hirugarren Mailako IV. taldera bueltatzea lortu zuten txuri-urdienek iaz. Zoritxarrez, erdizka dabilta betetzen aurtengo lana: mailari eustea. Erreakzionatzeko zazpi partida besterik gelditzen ez direnean, Oho-rezko Mailara jaisteko arrisku handian daude erandioztarrak. Izan ere, 31 partidatan 25 puntu eskas batu dituzte. Horrek sailkapen taulako 18. postuan kokatu ditu, azken postuetan

dauden Oiartzuni eta Amurriori bost puntuko abantaila ateratzen dizkietela. Halere, hori ez da nahikoa mailari eusteko; horretarako, beste talde bat harrapatu eta gainditu beharko dute.

Hurrengo partidak

Harrapakin hurbilena Pasaia da, baina gipuzkoarrek distantzia handitu dute azken partidatan, bost puntuko aldea metatzeraino. Balizko beste aukera, zailagoa, Lagun Onak da, 8 puntutara. Erandiok ez du erraz izango; Portugalete liderra Ategorrin hartu beharko du eguen honetan, datorren astean azpeitiarrak bisitatu aurretik. ◀

Erandio-Altzaga saskibaloit taldea banatzear dago

Erandio-Altzaga saskibaloit taldeak 25 urte beteko ditu 2016ko urriaren 21ean, Klubak «denetarik ekimenak» antolatu gura du, urtemuga ospatzeko «gure talde guztiok parte har dezaten». Halere, lortuko duenik ez dago argi. Izan ere, hainbat desadostasun tarteko, gizonezkoen senior taldeak iragarri du elkartearen diziplina utzi eta datorren urtean Bilbao Basketen Erandioko Zaleek sortuko duten kirol atalean jardungo dutela. «Litekeena da nesketako batzuk eta baita mutilen kadetea ere gugaz etortzea», diote. ◀

Info+: erandioaltzagabasket.com

Info+: ttiki.com/338332

Piti Hurtadoren gidari, formazio-ikastaroa Leioan

Eguen honetan, apirilak 2, Piti Hurtado saskibaloit-entrenatzaile ohi eta Euroligako telebista-hizlari ezagunak dozenaka entrenatzaile-ri formazio-jardunaldia emango die. Hitzordua Leioako NH hotelean jarri dute, Avanzada errepedearen ondoan, goizeko 10:00etan. Tailerrak 20:00ak arte luzatuko dira; bertan bazkaltzeko aukera izango da. Ekimena Saskibaloit Entrenatzaileen Euskal Elkarteak antolatu du, Euskal eta Bizkaiko Saskibaloit Federazioen laguntzagaz, Leioako Saskibaloit Taldearen 25. urteurrena ospatzeko.

Info+: Aveb.com

Sudokuak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.



3		5	4		1			6
6								8
	7							4
	2						5	7
				1	5			
			3					
		7	6		2			
		9			7			
1					3	6		9

			9	5			3	
						4	5	1
		3			2	8		
6	3		4					8
1								
		5		6				
2	1							4
						1		
		9	5	7				

	1							9
	4		6			2		
	2	6		7				
				5		1		3
9							2	
					6	4		
1			8	3	2			
	8		7					
		7	1			3		5

Soluzioak

5	8	3	6	7	1	7	9	2
2	1	6	5	9	7	3	8	4
4	9	7	2	3	8	5	6	1
7	5	4	9	6	2	1	3	8
9	2	8	7	1	3	4	5	6
3	6	1	8	5	4	2	7	9
8	4	5	1	7	9	6	2	3
1	7	2	3	8	9	6	4	5
6	3	9	4	5	2	8	1	7

9	8	2	1	7	5	6	4	3
3	6	1	9	7	4	2	8	5
4	7	5	6	3	8	9	1	2
7	4	3	8	9	1	5	2	6
5	2	9	7	6	3	4	8	1
8	1	6	5	2	4	7	3	9
6	9	8	2	1	7	3	5	4
1	5	4	3	8	9	2	6	7
2	3	7	5	4	9	6	1	8

6	7	9	3	5	8	2	4	1
3	8	2	7	4	1	9	6	5
5	4	1	2	6	9	7	3	8
1	6	8	4	2	3	9	5	7
2	9	4	5	1	7	3	8	6
7	5	3	8	6	9	1	2	4
4	2	1	9	6	5	8	7	3
7	1	4	9	6	3	5	8	2
8	3	5	6	7	2	4	1	9
9	2	6	1	8	4	5	3	7

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Korrika dela-eta gorputza mingor duzula oraindino? Aste bi beluago? Euskara eta kirol gehiagor aparte, medikua ere behar duzu!



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Aitita-amamek entzundako gauza beretsuak aditzeko, agian hobe zenuke Aberri Egunaren ekitaldiez paso egitea.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Domekan hirira joango zara, Aberri Egunera. Edozein aitzakia baita ona lagunakaz kalean lotu eta elkarregaz egoteko.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Beldur handiz isiotzen zabilta telebista egunotan: Pilatos, Herodes edo Jesus agertzen ez direnean, hor duzu Belen Esteban!



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Hunkituta zaude oporrak laster datozelako, baina orain arte non egon zara beharra egin behar zenean?



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Mendira joateko sasoia heldu da: kirola egin, arnasa freskoa hartu eta, batez ere, isiltasunaz gozatzeko aukera edukitzea. Merez duzu!



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Inguruko guztiak batera edo bestera doaz, eta herrian eta etxean bakar-bakarrik geldituko zara, behingoagatik!



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Gustura joango zinateke Berangoko Pasioa ikustera, baina aspaldi lotu zen bertan behera. Tabernara joatea beste erremediorik ez duzu.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Esango dizute ez duzula oporrik merezi. Urte osoa eman duzula zuretzat sabatikoa balitz legez. Ez egin kasurik ere ez!



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Astea zein aste akabua, lanegunak zein oporrak... zuri bost! Ohitura finkoak dituzu eta txikikeria horiek ez dizute eragiten.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Ikastaroan, trikimailu denak ikastear zaude honezkero, eta bat-batean oporrak heldu eta den-dena ahazten hasi zaizu.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Egun hauek bertoko txoko politak ikusteko baliatu nahi dituzu. Gogoratu metroan autobus-zerbitzua dagoela Plentziatik Larrabasterrara.

Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.saiazgetaria.com





Zarama

Kiratsa ohi darion urrea



Getxon zabor-bilketa greba hiru astez pairatu ostean, milaka uribekostarrei arreta eman die galtzadan eta espaloietan metatu diren hondakin-mendateek, eta horiei hurbiltzen zaizkien arratoi, kaio eta usoek; horregaz zer egin litekeen nork bere buruari galdearaziz...

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Uribekostarrek 60.901.477 kilo zabor bota zituzten 2014an, etxetik jaitsi eta edukiontzietan uzteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren Hiri Hondakinen Behatoki Iraunkorraren datuen arabera. Etxeko Hondakin deritzen multzo horretan, gorliztarrak izan ziren zarama gehien ekoitzi zutenak: pertsona eta egun bakoitzeko 1,35 kilo zakar zabor-biltzaileei utzita. Beste muturrean, leioaztarrek bota zuten hondakin gutxien, 910 gramo biztanle bakoitzeko. Eskualdeko batezbestekoa kilo biribila izan zen, 171.183 uribekostarrek ontzi urdinean, horian, berdean eta askotariko zaborrontzian utzitakoa zein hondakin handiak batzeko furgonetek eroan zutena kontuan hartuta. 60.901 tonatik 11.012 bakarrik batu ziren modu selektiboan, %18,08, Hiri Hondakinen Behatoki Iraunkorraren arabera. Izan ere, erakunde horrek 2000. urtetik aurrerako datuak eskaintzen ditu, eta serie osoan ez ditu kontuan hartzen hainbat gai, tartean bosgarren edukiontzienak.

Hondakin organikoak

Ontzi marroiak 2013an heldu ziren Uribe Kostara, eta 2014. urtea amaitzean Getxo, Leioa eta Barrika udalerrietan baino ez ziren falta. Mari Carmen Urbietta Leioako alkateak berak iragarri duenez, leioaztarrek apirilaren 7tik aurrera erabili ahal izango dituzte hondakin organikoak batzeko ontzi horiek,

zabaltzeko sistema elektroniko berritzailea izango dutenak. Getxori dagokionez, zabor-bilketa greba abiatu baino hilabete bat lehenago, otsailaren 3an, abiatu zuten hondakin organikoen atez ateko bilketa saltokietan. Oraindino Udalak baloraziorik egin ez duen arren, aurretik Imanol Landa alkateak azpimarratu zuen «nabarmen hobetuko» duela «gure denda-kaleetako garbitasun eta higiearen egoera,

**Sopelako Udala:
«Gaur egungo sistemagaz
ez dugu lortuko 2050. urtean
hondakinen %50 birziklatzea»**

eta, hortaz, gure auzokoena». Balorazio positiboak, ostera, Urdulizen egin dituzte. Josemari Gondra Ingurumen zinegotzia pozik agertu da 2014an 15,5 tona fruta, barazki, eta ogi hondar zein lorategiko hondakin sailkatu eta Bizkaiko Konpostegira bidali zituztelako, bertan konpost egin zezaten: «batezbesteko, hiru kilo batzen dabilta asteko eta familiako. Ratio ona da». Halere, zaborren %1 besterik ez zen izan. Apalagoa izan da bosgarren edukiontzien eragina Erandion, %0,61ekoa. «Arrakasta hiritarren parte-hartzearen arabera» izango zela iragarri zuen


Udalak aurretik. Sopelako Udalak ere ontzi marroia- ren gaineko hausnarketa egin du, eragina %0,37koa izan dela kalkulatu ondoren. Argi eta garbi azaldu dute egoera: «gaur egungo sistemagaz ez dugu lortuko 2050. urtean hondakinen %50 birziklatzea, eta hori da Europar Batasunak jarri duen muga». Hori dela eta, Sopelako Hondakinen Aholku Kontseiluak (SHK) zarama batzeko hainbat sistema aztertuko du, tartean atez-atekoa.

Zero Zabor filosofia

SHK-ko partaide Uribe Kostako Zero Zabor taldearen arabera, «posible da gaur egun sortzen diren hondakinen %80tik gora gaika bildu eta birziklatzea». Horretarako, hiru ildotan eragitea proposatzen dute: murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena; Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Europako Batasunak proposaturiko berberak, beti ere kontuan hartuta Zero Zabor kolektiboak ez duela aintzat hartzen balorizazio energetikoa: energia sortzeko hondakinak erretzea. Azpimarratu dutenez, geratzen den hondakinen %10 edo %20 horrek «oso materia organiko gutxi daukanez, ez da usteltzen eta ez du kiratsik botatzen. Dena den, ezin da bere horretan zabortegi batera bota». Kasu horretan ere, hiru proposamen dituzte hondakin-kopurua hutsaren hurrengoa izan eta azken errefusa hori inerte bihurtu: ikerketa, azken bereizketa eta egonkortzea.

Ikerketa mailan, arreta handia jartzen diote Italiako Capannori herrian (Pisatik gertu) dagoen Zero Zabor Ikerketa Zentroari. Handik iparrera, Venezia ondoko Treviso eskualdeko Contarina mankomunitateak fardelak edo pixoihalak birziklatzeko planta abian ipini berri du. Urtean, zortzi milioi tona fardel

Etxeko Hondakinak Uribe Kostan



birziklatzeko gai izango ei da instalazio berria. Con-tarinak 554.000 herritarri zerbitzua ematen die eta hondakinen %80tik gora gaika batzen ditu; han-go biztanle bakoitzeko eguneko 164 gramo zabor besterik ez. Gainera, erakundeak gaikako bilketa %96'7raino fintzeko erronka-helburua du, besteak beste, pixoihalen birziklatze-plantari esker. Lortuz gero, auzotar bakoitzak eguneko sortuko lukeen errefusa 27 gramotan lotuko litzateke, Uribe Kos-tan baino 37 aldiz gutxiago. Capannoriko Zero Zabor Ikerketa Zentroaren ustez, hondakinen %75a batze selektiboaren bidez jasotzen den lekuetan, gelditzen den errefusaren %14 bat fardelak dira. Hortaz, eredu ona izan liteke Gipuzkoan, Berrizen eta, agian, egu-nen batean, Uribe Kostan.

Bizkaiko Foru Aldundiak ipinitako helburuak

Pasa den 2012an onartu zuen Bizkaiko Foru Aldun-diak 2005-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatze-ko II. Plan Integralaren Ohiko Bigarren Berrikuspena (II. BUHKPI). Europako Batasunak, Espainiako Esta-tuak eta Eusko Jaurlaritzak jarritako parametroei jarraituz, Etxeko Hondakinen %26 birziklatzea eta %5 konpost bihurtzea ipini zuten 2016rako helburutzat. Beste hondakin mota batzuetan gurari handiagokoa zen foru asmoa. Iosu Madariaga Bizkaiko Inguru-men diputatuak testua onartu eta hilabete batzue-tara azaldu zuenez, «%40ko birziklatze-tasa ezarri dugu, eta egun betetzen dugu. Salbuespen bakarra organikoa da: kopuru osoaren %4 konpostatzea au-rreikusten genuen (25.000 tona), baina ez gara hel-tzen. Hor ahalegin handia egin behar dugu, bosga-rren edukiontzia bultzatuz». Madariagaren ustez, «organikoak, erabilgarria izateko, oso garbia izan

behar du, eta zabor arruntean, organikoa zikin dago. Gure etxeetan zikintzen dugu, sukaldean aritzean, olioagaz, metalakaz... Organikoa ezin da idealizatu; askok diote zaborraren %40 dela, baina horretatik zenbat aprobetxa daiteke? Oso zati txikia, beste guz-tia kutsatuta dagoelako, eta frakzio kutsatuarekin ezin da ezer egin. Hori aprobetxatzeko modu bat da balioztapen energetikoa». Halere, Ingurumen dipu-tatuak ziurtatu du hondakinen «herena besterik ez» dela erretzen, «%32».

Zabor azpiegiturak Uribe Kostan

Zabalgari errauste-planta ez dago Uribe Kostan, bai-na egon zitekeen. 1993an sortu zuten Zabalgari SA enpresa; gaur egun sozietateko bazkide nagusietako

Iosu Madariaga: «%40ko birziklatze-tasa ezarri dugu, eta betetzen dugu. Salbuespen bakarra organikoa da»

bat (%30aren jabe) baita Areetako Sener nazioarteko enpresa. Beste bazkideak dira: FCC (%30), Bizkaiko Foru Aldundia (%20), Energiaren Euskal Erakundea (%10), Kutxabank (%5) eta Ezkerraldeko Udalerrien Mankomunitatea (%5). 1994an, errauskailua Eran-dioko udalerrian kokatuko zutela iragarri zuten ofi-zialki. Urte berean sortu zen Erandio Bizirik auzo elkarte, errauste plantaren aurkako kanpaina ga-rrantzitsua burutu zuena, beste kolektibo batzuekatz batera. 1996an, errauste-plantaren aurkako platafor-ma osatu eta mobilizazio jendetsuak egin zituzten.

Iberdrolak eta RWE enpresa alemaniarrek proiektua utzi, eta Eusko Alkartasunak babesa kendu ostean, Aldundiaren asmoa nabarmen txikitu zen, hasieran aurreikusitako zaborraren erdia baino ez ei zelako erreko. Hala, Zabalgari gaur egun lekutzen den Ar-tigabidea (Bilbo) hautatu zuten errauste-planta erai-kitzeko; inguruan daude konpostegia, Bioartigas, li-xibiatuak tratatzeko planta, Tratamendu Mekaniko Biologikorako planta (TMB) eta zabortegia.

Hala ere, Uribe Kostan bada Lemoizko Marutxa-gaz auzoan dagoen Jata mendiko zabortegia, 1992ko urtariletik aurrera martxan dagoena. Bertako bost hektareatan, hondakinak birrindu eta zanpatu egi-ten dituzte, gainera birrinketa-zanpatzaile bi behin eta berriro pasatuz. Ondoren, lurragaz estaltzen da egunero; hartidura aire barik egiten da. 2013. ur-tean, 7.681 tona hartu zituen Jatako zabortegiak; 15 udali zerbitzua ematen die, tartean: Barrika, Eran-dio, Gorriz, Leioa, Plentzia, Sopela, Urduliz eta Le-moiz berari ere.

Azkenik, Uribe Kostak beste hiru azpiegitura ga-rrantzitsu ditu hondakinak bildu eta sailkatzeari be-gira: Erandio, Getxo eta Sopolako garbiguneak.

Zabor gutxiago, baina banatu barik

2014an jaso zen Etxeko Hondakin gutxien, Hiri Hon-dakinen Behatoki Iraunkorraren serieari dagokio-nez. Izan ere, krisiaren aurretik, 2007an, probetxu-garriak izan zitezkeen 70.277 tona hondakin bota zituzten uribekostarrek. Murritzeta, ordutik hona, %13,35ekoa izan da. Bestalde, gaika jasotakoan atze-rapauso txikia eman da, aldaketa handiegi bakoa. 2007an, etxeko zaramaren %18,13 bereizita eman zu-ten herritarrek, aurreko baino %0,05 gehiago. ◀



Mundukatuak

Ane Garavilla Herrera Algortarra

«Hegoafrikak «ostadar sukaldea» duela diote»

Lan kontuek eroan dute Ane Garavilla Herrera Hegoafrikako Nigel herrira, «gure enpresaren sozioa edo *partner* lokala dagoen lekura». Energia herriztagarrien sektoreko langile honek bidaiatzea izugarri gustuko du; hori dela eta, ez zizkion «pega askorik jarri» enpresaren erabakiari. Johannesburgotik 60 kilometro-ra dagoen Nigel herrian bizi da, fabrika han dagoelako, baina normalean hiriburuan ematen ditu aste akabuak, «Nigelen ez baitago egiteko askorik». Bosgarren aldia da Afrikako hegoaldeko doala, eta oraingoan hilabete eta aste baterako geldituko da, orain arte egondako egonaldirik luzeena.

Jan eta edana

Hegoafrikak kultura nahasketa erraldoia du, eta horrek janarian ere du isla; hala, herrialde honek «ostadar sukaldea» duela esaten dute. Gara-

villak azaltzen duenez, maila baxuko jendearen jatekoak afrikar erroak ditu. Haragi lehorra asko jaten dute, *biltong* izena duena. Algortarrak dioenez, «txorizo edo odoloste mehe moduko tira batzuk dira», jatorri ezberdi-

“Hegoafrikak kultura nahasketa erraldoia du, eta hori janarian ere islatzen da”

nekoak: behia, ostruka, antilopea eta ñua, besteak beste. Era berean, kolonialismoagaz sartutako jaki europarrak ere aurki daitezke bertan. Hala, urte bila joan ziren indiarrek ere euren sukaldea hedatu zuten, «Durban inguruan indiar sukalde oso ona dago». Edatekoei dagokienez, garga-doa da edaririk aukeratuena; hala

ere, Garavillak rooibos tea goraipatzen du, «hemengoak ez du Euskal Herrian har daitekeenagaz zerikusirik...».

Zer ikusi

Johannesburgok leku eder ugari ditu bisitatzeko, hiriaren erdialdea, esate baterako. CBD (Central Business District) izeneko inguru hori oso interesgarria da bere historiagatik. «Arrisku-tua da gaur egun zurientzako, baina merezi du ezagutzea», aitoritzen du algortarrak, «*Apartheid* garaian zurientzat bakarrik zen gune hori, baina sa-soi hura amaitzean, beltzek bere egin zuten». Neighbour Goods merkatua eta Soweto auzoa bisitatzeko ere ezinbestekoa dela dio Garavillak; azken horretan, Desmond Tutu eta Nelson Mandela bizi izan ziren. Bertan Korrika egin zuten, Euskal Herri-tik eroandako materialagaz, hango sinboloa diren Orlando Towers-etatik abiatuta. ◀

NOR DA

Nongoa

Algortan bizi den bilbotarra.

Adina

30 urte.

Zertan dabil

Lanean, enpresaren proiektu baten kudeaketa eroaten du.

Ikasketak

In dustria Ingeniaritza eta Energia Berriztagarrien masterra.

Noiz arte Johannesburgon

Joan eta etorri egiten du; bosgarren aldia da hau, eta hilabete eta astebeterako lotuko da.

NON DAGO



Lurraldea

Hegoafrikako Gauteng probintzia.

Azalera

1.644,96 km²

Hiria

Johannesburgo.

Biztanleria

5.610.991 lagun.

Hizkuntzak

Hegoafrikak 11 hizkuntza ofizial daude. Halaber, beste zortzi hizkuntza ez ofizial daude, «hizkuntza nazional» bezala onartuta daudenak. Ofizialak honakoak dira: bi hizkuntza in doeuparrak, ingelesa, afrikaansa eta beste bederatzia bantu familiakoak.

Dirua

Rand-a.

HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoena 16, 2. solairua 48991 GETXO
e-Posta: hiruka@hiruka.eus
Posta Kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Erredakzio-burua: Irantzu Sagaminaga
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Julien Nafarrate, Iñigo Fernandez de Martikorena

Argazkiak: Hodei Torres
Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri
Publizitatea: Erika Martinez
Kudeaketa: Zortza Merino
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege Gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95 **CC-BY-SA**
Ale-kopurua: 8.000 ale



Erakunde laguntzaileak:

